Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Garraio eta Hirigintza Saila
Departamento de Transportes y Urbanismo

# DURANGOKO ESKUALDE EGITURAREN LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
# PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGO



## BEHIN BETIKO ONESPENAREN AGIRIA

## V. UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINEN LABURPENA

2011ko UZTAILA

EZKIAGA ARQUITECTURA SOCIEDAD Y TERRITORIO, S.L.

# PLANEAMENDUAREN GAINEKO ERAGINAK

## AURKIBIDEA

**1. SARRERA .......................................................................................1**

**2. UDAL PLANEAMENDUAREN GAINEKO ERAGINAK ...............................1**

**2.1. Udalerri guztien gaineko eragin orokorrak..........................................1**

2.1.1. Natura- eta landa-ingurunea.................................................................1
2.1.2. Ondare Kulturala .....................................................................................7
2.1.3. Egoitza-ezarkuntzen sistema...............................................................8
2.1.4. Jarduera ekonomikoaren sistema......................................................10
2.1.5. Azpiegiturak ...........................................................................................12
2.1.6. Biztanleen bizi-kalitaterako eta hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak ......20
2.1.7 Planeamenduen bateragarritasuna...................................................21

**2.2 UDALERRI BAKOITZAREN GAINEKO ERAGINAK............................24**

2.2.1. Abadiño .................................................................................................25
2.2.2. Durango..................................................................................................28
2.2.3. Iurreta ....................................................................................................31
2.2.4. Izurta ......................................................................................................34
2.2.5. Amorebieta-Etxano..............................................................................37
2.2.6. Elorrio ....................................................................................................40
2.2.7. Atxondo ..................................................................................................43
2.2.8. Berriz ......................................................................................................46
2.2.9. Garai ......................................................................................................49
2.2.10. Mañaria .................................................................................................52
2.2.11. Zaldibar .................................................................................................55

4. Eraginen identifikazioa eta balorazioa. ....................................................30

4.1. LZPren helburuek izan ditzaketen ingurumen-eraginen azterketa ...30

4.2. LZPren jarduketek ingurumenean izan ditzaketen eraginen identifikazioa eta balorazioa ........................................................33

4.2.1. Antolamendu-kategoriak ................................................ 33
4.2.1.1. Sarrera........................................................................... 33
4.2.2. Jarduera ekonomikoaren eta egoitzen hazkunde berriak 34
4.2.2.1. Ondorioak eta eragin-matrizea ……….......……………... 38
4.2.3. Mugikortasuna ............................................................... 40
4.2.3.1. Mugikortasunaren arloko proposamenaren ondoriozko eraginak.......................................................................... 42
4.2.4. Trenbide sarea .............................................................. 44
4.2.4.1 Trenbide sarearen arloaren gaineko proposamenen ondoriozko eraginak..................................................................... 46
4.2.5. Energia eta telekomunikazio azpiegiturak........................ 46

5. Prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurriak ......................................49

5.1. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien identifikazioa. .....49

6. Planaren ondorioak ikuskatzeko programa .............................................51

7. Alternatiben ingurumen-azterketaren justifikazioa eta eragin handiak eta larriak sortzen dituzten jarduketen berrikuspena, lurraldeko plan partzialak berriro egin ondoren. ....................................................................52

## 1. SARRERA

Udal Planeamenduaren gaineko Eraginen agiri hau, Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren barrukoa, Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak onetsi dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuko Bigarren Azken Xedapeneko 3. puntuan ezarritako agindua betetzeko idatzi da.

Eraginen gaineko Agiria ondo garatzeko, aditzera eman behar da, LAAn berariazko agindua aintzat hartuta (lehen adierazitakoa), eraginpeko udalerri bakoitzaren planeamendua aldatzen duten puntu zehatzak jaso behar direla. Halaber, Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak aplikatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, agiri horretan eraginpeko udalerri bakoitzaren gaineko eraginak jasoko dira.

Ondoren, Lurraldearen Zatiko Plana osatzen duten agirietan xedapen lotesle eta arautzaile izenez ageri direnak jaso nahi izan dira laburbilduta; horiek eragina dute plangintza sektorialean eta udal-plangintzan, eta beraz, agiri honek ez du Lurraldearen Zatiko Planeko gainerako agirietan jaso gabeko xedapenik eskaintzen edo ezabatzen. Beraz, akatsik edo hutsunerik egonez gero, bertara jo beharko da.

## 2. UDAL PLANEAMENDUAREN GAINEKO ERAGINAK

### 2.1. Udalerri guztien gaineko eragin orokorrak

Ondoren, udalerri guztiei buruzko xedapen nagusiak laburbilduko ditugu; horri dagokionez, aintzat hartu beharreko jarraibideak LZPa osatzen duten agiriak izango dira, eta udal-planeamendua horietara egokitu beharko da.

#### 2.1.1. Natura- eta landa-ingurunea

LZPk ingurune naturaleko antolamendu-kategoriak ezartzen ditu; horiek eremu homogeneoak dira, euren ingurumen-ezaugarrien arabera, eta

bakoitzari erabilera jakinak esleitzen zaizkio, bertako baliabideen iraunkortasuna aintzat hartuta.

Arauketa berezirik gabeko kategorietarako erabileren eta jardueren araubidea, bestalde, Arauetako II. eranskintzat aurkezturiko antolamendu-matrizean ezarritako xedapenetan oinarrituko da eta arau horien 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kategorizazio hori, berriz, gainjarritako baldintzekin (Ingurumen Hobekuntzako Ekintzak, Gainjarritako Baldintzak, Izaera batasunaren Baldintza Gainjarriak eta Flora eta Faunarako Interesdun Eremuak eta landa-inguruko osagai nagusiekin osatzen da.

Kategorizazioari gainjarritako baldintzatzat, paisaiaren irismena ere sartzen da, eta hori agiri honetako 2.1.2 puntuan azalduta dago.

2.1.1.1. Inguru Naturalaren Kategorizazioa

Hurrengo lerroetan antolamendu kategoriak izendatzen dira, eta dagokion kasuan, bere balore naturalei jarraituz hiru mailatan taldekatutako azpiegiturak, zeintzuk integratzen duen araudi komunarekin zerikusirik ez duten:

- **Babes Aparteko lurzoruak** Babesturiko espazio naturala:
    - a) Babesturiko espazio naturalak (Urkiolako Parke Naturala)
    - b) Zuhaitz berezia. Garaiko artea
    - c) Urdaibai Biosfera Erreserba
- Interes naturaleko eremuak:
    - a) LAAk proposaturiko interes naturalistikoko eremuak: Udalaitz
    - b) Baso autoktonoak
    - c) Mendiko belardiak
- Interes hidrologikoa duten eremuak

a) Gune hezeak. I.talde

Kategoria horien mugaketa 1.1 Antolamendu Planoan identifikatuko da: “Inguru Naturalaren Antolamendua. Kategorizazioa“

Udal-planeamenduak kategorizazio hori jaso eta mugaketa zehatza ezarriko du; gainera, erabileren eta jardueren araubideak garatuko ditu, Araudian II. eranskintzat jasotako antolamendu-matrizean ezarritako xedapenetan oinarrituz, arauketa berezirik ez duten kategorietan, bertako 29-33. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- **Gainazaleko uren babeseko lurzoruak**

Udal-plangintzak Gainazaleko Uren babeseko kategorizazioa jasoko du; horren antolamendua eta esku-hartze araubidea, berriz, legeria sektorial aplikagarrian ezarritakoak izango dira, Araudiko 35. artikuluan adierazitakoaren arabera.

- **Babeseko lurzoruak**

  - Nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala:
    a) Balio estrategiko handiko landazabalak
    b) Trantsizioko landa-paisaiak
  - Basoa
    a) Baso-landaketak
    b) Sastrakak

Udal-planeamenduak kategoria horiek jaso eta mugaketa zehatza ezarriko du; gainera, erabileren eta jardueren araubideak garatuko ditu, Araudian II. eranskintzat jasotako antolamendu-matrizean ezarritako xedapenetan oinarrituz, arauketa berezirik ez duten kategorietan, bertako 41-43. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- **Landagunea**

Landagunea ingurune naturala eta landa-ingurumena antolatzeko kategoriatzat ezartzen da, eta hori araudiko 44-46. artikuluetan araututa dago. Udal planeamenduen landa nukleoen mugatzea LZP honen irizpideen hitzarmenarekin bat burutuko da.

2.1.1.2. Inguru Naturalaren Kategorizazioari Baldintza Gaingarriak

Halaber, gainjarritako baldintzak, ingurumen-hobekuntzako ekintzak, Izaera batasunaren Baldintza Gainjarriak, Flora eta Faunarako Interesdun Eremuak eta ingurune naturaleko osagai nagusiak ere jasotzen dira:

- **Gainjarritako baldintzak**

LZPk ondoren adierazitako gainjarritako baldintzak ezartzen ditu; jarduera batzuk garatzeko modua mugatzen du, kasu bakoitzeko arriskuaren arabera eta babes-irizpide bereziak aintzat hartuz. Baldintzak honako hauek dira:

- Eremu ureztagarriak
- Akuiferoen kutsadurarekiko eremu zaurgarriak
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskukoak

Horien kokalekua 1. 2 Antolamendu Planoan identifikaturik dago: “Inguru Naturalaren Kategorizazioari Baldintza Gaingarriak“ Horien arauketa, berriz, Araudiko 49-52. artikuluetan egiten da.

- **Ingurumen-hobekuntzako ekintzak**

LZPk ingurumen-hobekuntzako ekintza hauek ezartzen ditu; horiek, halaber, antolamendu-kategoriei ezarritako erabilerak baldintzatzen dituzte, hobekuntza- eta babes-irizpide bereziak aintzat hartuta. Ekintzak honako hauek dira:

- Ingurumen-hobekuntza orokorreko eremuak
- Lanik gabeko harrobien eta hondakindegien ingurumen-hobekuntza
- Ondo kontserbaturiko landaredia duten ibai-ertzak
- Suspertu beharra duten ibai-ertzak
- Hiriguneetan bermatu beharreko ibai-ertzak
- Igarobide ekologikoak

Horien kokalekua 1.2. Antolamendu Planoetan identifikaturik dago: “Inguru Naturalaren Kategorizazioari Baldintza Gaingarriak“ ”. Euren arauketa, berriz, Araudiko 53-57. artikuluetan egiten da.

### - Izaera Batasunaren Baldintza Gainjarriak

LZPk bere ordenamendura gainjarritako beste baldintza moduan 2000 Natur Sarea sartzen du.. Honek, mehatxatutako habitat edo espezieak dituen lekuen europar sare ekologikoa osatu eta hau hondatzea saihestuz, kontserbazio egokian hauen mantentzea du helburu (92/42/CEE edo habitaten Zuzendaritza, 1997/1995 Dekretu Erreala eta Biodibertsitatearen eta Ondare Naturalaren abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bidez espainiar ordenamendu juridikora aldatua).

Sare hau Garrantzia Komunitarioa duten Lekuek osatzen dute (GKL), Kontserbazio Gune Berezietan (KGB) duten eraldatzeraino eta Hegaztientzat Babes Berezidun Guneak (HBBG), zehazki esanda, Durangoko gune Funtzionala den Urkiola Parkea eta Urdaibaiko Ibai-Sarea.

Bere kokapena *1.2 "Ingurune Naturalaren Kategorizazioari Gainjarritako Baldintzak"* Ordenamenduaren Planoan identifikatzen da eta bere arautzea Araudiaren 58 artikuluan egiten da.

## - Flora eta Faunarako Intersedun Eremuak

Durangoko Gune Funtzionalean, Fauna eta Floran Mehatxatutako Espezieen Katalogoan dauden espezie batzuk aurkitzen dira, Euskal Herriko Naturaren Kontserbazioko 16/94 Legeak sortua, zeinen babesak neurri espezifikoak eskatzen dituen, dagokien kudeaketa Planetan islatuak, dagokien 2006ko ekainaren 19ko datan Foru Dekretuek onartua.

LZPk bere antolamendura, gainjarritako beste baldintza moduan, Interes Faunistikoa duen Gunea sartzen du. Bere kokapena *1.2 "Ingurune Naturalaren Kategorizazioari Gainjarritako Baldintzak"* Ordenamenduaren Planoan identifikatzen da eta bere arautzea Araudiaren 59 artikuluan egiten da.

## - Inguru naturaleko osagai nagusiak

Ingurumenaren, naturaren eta ekologiaren aldetik interes handikoak diren edo arlo jakinen batean garrantzia duten eta, euren berezitasunaren eraginez, Eskualde Egiturako natura-ondarearen barruan integraturik dauden guneak mugatzen edo adierazten dituzte. Bi talde bereizten dira:

- Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten eremuak.
- Zuhaitz-ale interesgarriak

Horien kokalekua 1.2. Antolamendu Planoetan identifikaturik dago: *"Inguru Naturalaren Kategorizazioari Baldintza Gaingarriak",*Euren arauketa, berriz, Araudiko 62-64. artikuluetan egiten da. Udal-planeamenduak, bidezkoa izanez gero, LZPko Araudian adierazitakoaren arabera mugatu eta arautuko ditu osagaiok.

### 2.1.1.3. Paisaiaren irisgarritasuna

Paisaiaren irisgarritasuna kategorizazioari gainjarritako baldintza da, eta errespetatu egin behar ditu natura- eta landa-ingurunea antolatzeko kategorien eraginezko mugak.

Paisaiaren irisgarritasuna, izan ere, biztanleriari “lurraldearen iragazkortasuna” bermatzeko sistema integratua da; hiritarrak naturaz gozatzeko mekanismoak bilatzen dira, espazio bakoitzaren bokazioarekiko modu bateragarrian. Paisaiara hurbiltzeko aukera ematen duen sistema edo sare honen osagaiak ondokoak dira: paisaia-interes bereziko eremuak, paisaia-intereseko ibilbideak eta paisaia-intereseko elementuak.

Paisaiara hurbiltzeko proposamena *Paisaiaren Ibai Sistema* deritzonarekin osatzen da; haran-hondo osoan dagoen udalerriz gaindiko nekazaritza-, paisaia- eta kultura-intereseko eremua da, eta ibaiek nahiz horien ertzek, ingurumen-intereseko hiri-inguruko landazabalek eta paisaiaren ibai-ibilbideak osatzen dute.

Paisaiara hurbiltzeko proposamena 2. Antolamendu Planoan identifikatzen da: “*Paisaiaren irisgarritasuna eta kultura-ondarea*”.

Horren arauketa LZPren Araudiko 67-71. artikuluetan zehaztuta dago.

## 2.1.2. Ondare Kulturala

Lurraldearen Zatiko Planak 7/1990 Legeak babestutako Kultur Ondasunen Euskal Ondare Kulturalaren Zentroak emandako zerrenda jasotzen du, zeintzuk Euskal Herriko Ondare Kulturala osatu eta horrela denez udaleko planeamenduetan barneratu beharko lirateke.

Era berean, lege honek edo ordezkatzen duenak etorkizunean babes ditzakeen legeek eta LZPn bilduta ez daudenak,  arreta bera edukiko dute.

Interes Kulturaleko Ondasun moduan deklaratuta ez dauden eta Euskal Ondare Kulturalaren Zentroak emandako zerrendan dauden ondasunak, udal planteamendura igorrita geratuko lirateke, dagokion kasuan, beharrezko deritzon babes erregimenak erabakitzeko helburuarekin.

### 2.1.3. Egoitza-ezarkuntzen sistema

Egoitza-ezarkuntzen sistemaren arauketa LZPren Arauetako Hirugarren Tituluan jasota dago.

Egoitza-ezarkuntzen sistemaren informazio grafikoa 6. Antolamendu Planoan araututa dago: “*Lurralde-eredua*”.

16 urterako ereduaren etxebizitzen zenbatekotzea Araudiaren IV Eranskinak dakar.

Bere Planteamendu Nagusia berrikusten duen udalerri bakoitzak aipatutako planean ezarritako eperako baimenduak dauden etxebizitza gehienen zenbaketa egin beharko du, modu loteslean, LZP honetan ezarritakoaren arabera Araudiaren VII Eranskinean.

Egoitza-ereduaren helburu orokorrak Araudiko 75. artikuluan adierazitakoak izango dira. Horren kudeaketa, berriz, 92. artikuluan adierazitako xedapenetara egokituko da, eta xedapenok ondoren laburbilduta daude:

- Etxebizitzak, zeinen exekuzioa planteamenduek bermatu behar duten, itotzeak saihestea helburu duten eredutik abiatuta lortutakoak dira eta ez eskainitakoak.

- Antzemandako beharrak ordaindu beharko lirateke, alde batetik, eta lehenik eta behin eraikitako ondarearen optimizazioarekin, etxebizitza hutsen mobilizazioaren eta existitzen den eraikinen birgaitze edo berrikuste ereduak sailkatuta mantentzen duen eta indarrean dagoen Planeamenduaren lurzoru hutsaren berreraikitze trinkoari dagokien lan posibleen bidez, gutxienez 2/2206 Legeak

ezarritako eraikigarritasunaren irizpideekin bat etorriz eta, bestetik, okupazioaren eremu berrien barruan lurzoru berria sartu, oraindik beharrezkoa bada.

Arlo horiek 94-99. artikuluetan zehatz garatuta daude; artikulu horiek jarraitu beharreko estrategia garatzen dute, baita dentsitateari, etxebizitza bakoitzeko eraikitako batez besteko azalerari eta egokitzat hartzen diren tipologiei loturiko alderdiak ere.

Etxebizitzak direla eta eraikitako lurzoruaren mugak aholkatzen dira hurrengo dentsitateen arabera:

A. tartea: hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako tartea, hektarea bakoitzeko 50 etxebizitzako gehienekoarekin. Tarte honetan, hektarea bakoitzean eraikitako gehieneko azaleraren muga, izan ere, 50 etxebizitzei 100 m2 aplikatzearen ondoriozkoa da.

B. tartea: hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako tartea, hektarea bakoitzeko 75 etxebizitzako gehienekoarekin. Tarte honetan, hektarea bakoitzean eraikitako gehieneko azaleraren muga, izan ere, 75 etxebizitzei 90 m2 aplikatzearen ondoriozkoa da.

Zornotza eta Durangoko udalerrietan, bere ezaugarri urbanistikoen arabera, hektarea bakoitzeko 75 etxebizitza maximoa gaindi daiteke biztanleko 120 etxebizitzarainoko topera heldu arte; beraz, eraikigarritasunak ezingo luke aipatutako dentsitateari aplika beharreko emaitza gailendu, 90 $m^2$-ko etxebizitzen batez besteko gainazala, ekipamendu pribatu eta/edo ekintza ekonomikoen kokapenerako %10ean areagotua.

LZP honen lurraldeko ereduak erdi maila eta maila altuko dentsitatedun tarteengatik egiten du apustu. Dagokien eraikigarritasunak gehitzen diren etxebizitzen batez besteko gainazalek aipatutako dentsitateetara egindako aplikazioen emaitza dira, beraz, LZP honen irizpidea da eraikigarritasun hauek berehalako ingurunearekin erlazionatuta egotea, existitzen diren nukleoen

proposamen berrien integrazio eta udalerri bakoitzaren fisonomia esanguratsuaren mantenuarekin bateragarria izateko helburuarekin.

Tarte horietarako, ondoriozko etxebizitzaren azalera eraikigarria %10ean handituko da, jarduera ekonomiko bateragarrietarako edo ekipamendu pribatuetarako.

Udal-planeamendu orokorrak babes publikoa, babestua eta tasatua duten etxebizitzak eraikitzeko lurzorua kalifikatu beharko du, estandar horiek ezartzeko eta arautzeko ardura duen indarreko legerian ezarritako baldintzak aintzat hartuta. Alderdi horiek 101. eta 102. artikuluetan jasota daude.

### 2.1.4. Jarduera ekonomikoaren sistema

LZP honek bi aldagai dituen eredu ekonomikoaren aldeko apustua egiten du: alde batetik, industria-erabilerako lurzoruen garapena, hiriguneetatik erabilera horiek egoitza-erabilerekin bateragarriak ez izateagatik bereizitako zonetara lotuta; eta, bestetik, hiri-inguruetan kokaturiko egoitza-erabilerekin bateragarriak diren eta horiei lotuta dauden hirugarren sektoreko erabilera mistoen garapena.

Egoitza-erabilerekin bateragarriak ez diren zonen okupazioaren mugako eremuetan industria-jarduerak edo logistikoak egingo dira, trafiko astunari eta merkantzien trafikoari lotuta, eta horien helburua udal-planeamenduak aukeratuko du. Esku-hartze horiek Eskualde Egitura osoaren beharrizanak betetzeko dira.

Hiri-inguruetako edo horien mugakideak diren inguruetako esku-hartzeei dagokionez, ereduan hirugarren sektoreko eta merkataritzako erabilerak sartzen dira, baita enpresa-parkeak ere, guztiak egoitza-eremuetan integratuak, zonen, logela-hirien eta isolaturiko jarduera ekonomikodun eremuen araberako espezializazio funtzionalik ez egoteko, horrek eragin nabariak baititu, bai funtzionalak eta bai ingurumenekoak.

Horrenbestez, Eguskitza II. eta III. poligonoen (Durangoren eta Abadiñoren artekoak) eta horien ondoko lurzoruen tertziarizazioa proposatzen da; lurzoru

horiei dagokienez, LZPk aukeraturiko okupazioaren mugako eremuen barrukotzat kalifikatzen dira udal-planeamenduan; helburua honako jarduera hauen osagarriak izatea da: industria-jarduerak eta hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak, enpresen, heziketa-zentroen, ikastetxeen eta banku-bulegoen zerbitzurako eraikinekin (ekimen berriko enpresak dituen Enpresa Parkea). Ekimen hori lagungarria da jarduera ekonomikoa gehiago dibertsifikatzeko, zentralitate handiko espazio hauetan, eta gainera, enplegu gehiago sortzeko laguntza ematen du.

Bestalde, suspertze-espazioak proposatzen dira, eta, horiei dagokienez, ez da kuantifikaziorik ezarri, okupaturiko eta udal-planeamenduak jarduera ekonomikotzat kalifikaturiko lurzoruetan garatzen baitira.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sustapen publikoari dagokionez, LZPk ez du beharrezkotzat hartzen lurzoru-azalera berririk erreserbatzea, SPRI Pulla esparruan tramitatzen ari dena aparte utzita, LZPren horizonte-aldirako nahiko baitira udal-planeamenduak kalifikaturik dituenak.

Arauketa, berriz, LZPko Araudiaren IV. tituluan ezarrita dago.

Jarduera ekonomikoaren eredua, bestalde, Araudiko 102. artikuluan adierazitako helburu orokorren araberakoa izan beharko da.

Udal-planeamenduak jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa ezarriko du, Araudiko IX. ERANSKINEAN ezarritakoa: “Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Ereduaren udal-aplikazioa. Ereduaren kuantifikazioa 8 urtera”. Hori udal-planeamenduetan jasoko da, modu loteslean, eta planeamendu horiek 8 urteko eperako programatu beharko dute betearazpena.

Jarduera ekonomikoaren ereduaren kudeaketa, bestalde, Araudiko 115. artikuluan adierazitako xedapenetara egokituko da, eta xedapenok ondoren laburbilduta daude:

- Garatu behar den lurzoruaren gainazala, ereduaren beharretan zenbatzen dena da, eskaintzaren markoa merkatuaren aldi bateko zorroztasunak direla eta, itotzeak saihestea helburu duen behar horien betekizuna bermatzeko bitartekaria den bitartean .

- Aurkitutako beharrak lehenik eta behin ekintza ekonomikoen eremuen **birsorkuntza** eta **planteamenduaren kapazitate hutsa**ren erabileraren bitartez babestu beharko lirateke eta, beharrezkoa den neurrian bakarrik, okupazioarekiko eremu muga berrien barruan lurzoru berria garatuz egingo litzateke.

119. eta 120. artikuluetan LZPk proposaturiko jarduera ekonomikoaren erabilerari loturiko tipologiak arautzen dira, baita jarduera ekonomikoetarako lurzoruan aplikatzeko moduko irizpideak ere.

Jarduera ekonomikoaren informazio grafikoa 6. Antolamendu Planoan jasota dago: "*Lurralde-eredua*".

### 2.1.5. Azpiegiturak

Azpiegitura-sistemak, Araudiaren arabera, honako eskema hau dauka:

a) Aukerako mugikortasuna
   - Motorduna ez den mugikortasuna.
   - Garraio publikoarentzat soilik erreserbatutako plataforma
b) Garraio-azpiegitura.
   - Bide-sarea.
   - Trenbide-sarea.
c) Zerbitzuen oinarrizko azpiegiturak.
d) Energiaren eta telekomunikazio-zerbitzuen hornidura.

#### a) Aukerako mugikortasuna

- Motorduna ez den mugikortasuna

Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, motorduna ez den mugikortasun sarea, izan ere, urbanizaturiko eremuen artean

(egoitzaguneak eta industria jarduerako nahiz ekipamenduko eremuak) oinezkoen edota bizikleten zirkulaziorako erabiltzen dena izango da.

Sare hori, funtzionaltasunari dagokionez, neurri batean, banaketakoak eta kapilarrak diren bide-sareen tarteekin osatuta gelditzen da, eta bestetik, lurraldean sartzeko ibilbideekin, eta horietan halako erabilerak ahalbidetzen dira, lekualdatzeko beste modu batzuekin batera.

Motorduna ez den mugikortasun sarearen azpiegituraren eskema, Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, egoitzaren eta jarduera-eremu nagusien (hiri-garapeneko eremuetan dauden lan-zein aisialdi-eremuak) arteko lotura-irizpideen formalizazioa da. Eskema, edozein kasutan ere, loteslea da.

Trazatua bat dator azpiegituraren kokaleku espazial zehatzarekin, eta horren zehaztapen xehatuari lotuta dago, bai kokaleku espazialari eta bai ezarkuntzarako behar diren lurzoruen mugaketari dagokionez; zehaztapen hori garapen-planeamenduak egingo du eta, beraz, kasuan kasuko euskarri fisikora egokitzearen eraginezko baldintzen araberako egokitzapena izango da; horretarako, planeamendu-tresna egokiak erabili eta ondo arrazoitu nahiz justifikatu beharko da bete egiten dela Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko motorduna ez den mugikortasun sarearen edukia.

Lurraldearen Zatiko Planak aukerako mugikortasun-sarearen azpiegituraren proposamena ezartzen du, azpiegitura horren eskema 4. Antolamendu Planoan zehaztuta: “*Aukerako mugikortasuna*”.

- Garraio publikoarentzat soilik erreserbatutako plataforma

Lurraldearen Zatiko Planak Eskualde Egituran garraio publikoko plataforma iraunkorra sortzea ezartzen du, egoitza- eta jarduera-lurzoru guztietarako irisgarritasun egokia bermatu ahal izateko.

Garraio publikoko plataforma soila eskema mailan agertzen da Lurraldearen Zatiko Planean eta grafiatu den trazaketa ezin da lotesletzat jo. Garraio publikoko plataformaren proposamena 4. Antolamendu Planoan egiten da: "*Aukerako mugikortasuna*", hain zuzen ere lehen hurbilketa dena horren trazatu zehatzari ekiteko, berriz, 4.1 eta 4.7 bitarteko Antolamendu Planoetan egiten da: "*Plataforma soileko garraio publikoko trazatuaren proposamena*". Horren sekzio estandarrak 4.8 Antolamendu Planoan ageri dira: "*Plataforma soileko garraio publikoko trazatuaren proposamena. Sekzio estandarrak*".

Garraio publikoko plataforma soilaren eskema loteslea da, planeamendu sektorialeko eta udal-planeamenduko tresnei dagokienez eta hori horrela da LZP honen oroitidazkian adierazi diren helburu eta irizpideei dagokienez eta, gune arazotsuetako igarobideen ebazpenerako eta sekzio estandarren egokitzapenerako (trazatu-tarte desberdinetarako egokitzapena), azterketa sakonagoa egin beharko da.

"Intermodalitategunea" izango da, Lurraldearen Zatiko Planaren ondoreetarako, trenbide-garraioaren eta bestelako mugikortasun mota batzuen arteko lotura- nahiz koordinazio-elementua.

"Intermodalitategunearen" mugaketa, antolamendua eta esku-hartze araubidea, bestalde, planeamendu orokorreko edo bereziko (udalekoa edo udalerriz gainditikoa) tresnek ezarritakoak izango dira. Lurraldearen Zatiko Plan honetan, Durangoko eta Amorebieta-Etxanoko trukagailu modalak "Intermodalitategunetzat" hartzen dira.

## b) Garraio-azpiegitura

- Bide-sarea

Lurraldearen Zatiko Planak bide-sarearen azpiegitura proposatzen du, azpiegitura horren eskema 3. Antolamendu Planoan zehaztuta:

“*Errepide- eta trenbide-sarea*”. Horren arauketa, berriz, 129-132. artikuluetan ezarrita dago.

Bide-sarearen eskema loteslea da planeamendu sektorialeko eta udal-planeamenduko tresnei dagokienez, ibilbidearen irizpidea aintzat hartuta.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe, garapen xehatua eta kokaleku espaziala, baita bide-eskema hori ezartzeko behar diren lurzoruen mugaketa ere (oinarrizkoa dela aintzat hartuta), egokitu egin daitezke, planeamenduko tresnak erabiliz, betiere modu arrazoituan, eta Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko bide-sarearen zentzua bete egiten dela justifikatuz.

Trenbide-sarea

Lurraldearen Zatiko Planak trenbide-sarearen proposamena ezartzen du, azpiegitura horren eskema 3. Antolamendu Planoan zehaztuta: “*Errepide- eta trenbide-sarea*”. Horren arauketa, berriz, 133., 135. eta 114. artikuluetan egiten da.

Trenbide-sarearen eskema loteslea da planeamendu sektorialeko eta udal-planeamenduko tresnei dagokienez, ibilbidearen irizpidea aintzat hartuta.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe, garapen xehatua eta kokaleku espaziala, baita bide-eskema hori ezartzeko behar diren lurzoruen mugaketa ere (oinarrizkoa dela aintzat hartuta), egokitu egin daitezke, planeamenduko tresnak erabiliz, betiere modu arrazoituan, eta Lurraldearen Zatiko Planak zehazturiko trenbide-sarearen zentzua bete egiten dela justifikatuz.

### c) Zerbitzuen oinarrizko azpiegiturak

- Hornidura

Lurraldearen Zatiko Planak, ur-horniduraren arloan, sarea mantentzeko neurriak hartzea proposatzen du, ihesen ondorioz baliabidea ez galtzeko; gainera, honako gomendio hauek ematen ditu:

- Durangoko Eskualde Egitura, apurka-apurka, hornidura-sistema metropolitarretan sartzen joatea.
- Zornotza-Eubako eta Irurreta-Durangoko eremuetako sistema nagusiak indartzea, horien inguruetan segurutik egingo diren garapen berriak aintzat hartuta.

Dokumentazio Grafikoan, hau da, 5.1 Antolamendu Planoan "*Hornidura*", modu eskematikoan jasota dago hornidurako oinarrizko sarearen trazatua, eta udal-planeamenduek kontuan hartu beharko dute hori, azpiegitura betearazteko proiektuekin bat datorren lurzorua ondo mugatzeko.

- Saneamendua

Lurraldearen Zatiko Planak, uren horniduraren arloan, sistema orokorren inbentarioak egitea proposatzen du, horien gaitasuna zehatz ezagutzeko; gainera, honako gomendio hauek ematen ditu:

- Bereizte-saneamenduko sistemak sortzea, hustubideei eta araztegiei emandako emariak murrizteko eta horien funtzionamendua errazteko.
- Eskualde Egituran erabilitako ur guztiak araztea, landa-lurzoruetakoak ere barne.
- Industria-uraren sarea ezartzea, kontsumitzaile handientzat, arazitako hondakin-uren zati bat zuzenean erabilita.
- Zornotza-Eubako eta Irurreta-Durangoko eremuetako sistema nagusiak indartzea, horien inguruetan segurutik egingo diren garapen berriak aintzat hartuta.

- Hondakin solidoen eta kutsaturiko lurzoruen kudeaketa

Lurraldearen Zatiko Planak hondakin solidoen kudeaketari loturiko proposamen hauek ezartzen ditu Durangoko Eskualde Egituran:

- Toki mailan, murriztapenaren arloko ahalegin handia egitea, hiri-hondakin solidoen per capita sorkuntzaren hazkundea ahalik eta gehien murrizteko.

- Hondakinen berrerabilera, birziklapena eta aprobetxamendu energetikoa sustatzea, udalerri guztietan hondakin mota bakoitzerako edukiontziak jarrita, eta banaketa eraginkorra eta nahikoa ahalbidetuz, udalerri eta mankomunitate mailan, etxeko hondakinak eta antzekoak modu selektiboan biltzeko zentroetan oinarrituz (Garbiguneak), hiritarrei hondakinak bereizteko lana erraztu ahal izateko.

- Bilketa selektiboko eremuak ezartzea, jarduera ekonomikoak dituzten poligonoetan, hirikoetara asimilagarriak diren hondakin solidoen edukiontzien instalaziorako eremuekin, Arauotako artikulu egokiak jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruz adierazitakoaren arabera.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak gehiago kontrolatzea; izan ere, izaera erdizehaztugabea izan arren, eragin larriak sortzen dituzte lurrazaleko eta lurpeko baliabide hidrikoetan.

- Gure geografiako leku batzuetan kutsaturik egon daitezkeen lurzoruen presentziaren eraginezko arazoari aurre egiteko, udal-planeamenduak aintzat hartu beharko du lurzoruaren kalitatearen aldagaia, 165/2008

Dekretuaren bidez indarrean jarrita, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa erabiliz, lurzoruaren kutsadura aurreikusteko eta zuzentzeko 1/2005 Legeko xedapenen betetzeari egin behar dio aurre (Eusko Legebiltzarraren Legea), industrialdeak suspertzeko eragiketak zehazteari dagokionez, Lege horretan jasotako egoera guztietan.

Azpiegitura hauek adierazten dituzten ikonoak (5.1 Antolamendu Planoa: “Oinarrizko Azpiegiturak. Hornikuntzak” eta 5.2 “Oinarrizko Azpiegiturak. Onbideratze-Hondakinak” sinbolikoak dira, eta udal-planeamenduetan horien kokaleku zehatza eta behin betikoa jaso beharko da, bidezko betearazpen-proiektuetan ezarritakoaren arabera.

## d) Energiaren eta telekomunikazio-zerbitzuen hornidura

- Energiaren aprobetxamendua

Lurraldearen Zatiko Planak honako proposamen hauek egiten ditu Durangoko Eskualde Egiturarako:

- Erabilitako energia-iturriak dibertsifikatzea, energia-multzo malguaren eta ez hain zaurgarriaren (hornidura-iturriren baten barruko aldaketei dagokienez) erabilgarritasuna ahalbidetu ahal izateko.
- Gasa garraiatzeko eta banatzeko sarea apurka-apurka instalatzea, hiri- eta industria-inguru nagusietan, energia-aukeratzat hobari handiak eskaintzen dituelako.
- Udal-planeamenduek energia sortzeko zentrotxoen instalazioa ahalbidetu ahal izango dute, hondakinen tratamenduan edo energia berriztagarrien aplikazioan oinarrituz; horretarako, lurzoru-erreserbak egingo dituzte, jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko eremuen barruan, sorkuntza horretarako behar diren elementuek landa-ingurunean eta paisaian sor dezaketen eraginaren aurretiazko balorazioa egin ondoren. Instalazio horiek jarduera ekonomikoetarako instalazioei lotuta egongo dira, baina jarduera nagusiari loturiko bigarren mailako jarduerak garatuko dituzte beti.
- Aireko linea elektrikoen eraginak murrizteko plana lantzea, trazatuen edota ustiapen-bermeen eraginez erredundanteak izan daitezkeen lineak lotzeko eta arazorik larrienak murrizteko, atzeraemanguneen edo lurperatzeen bidez; gainera, azpiegitura pilatzen duten igarobideen sorkuntza sustatuko da, Lurraldearen Zatiko Planaren Memorian adierazitakoaren arabera.

Proposamen horiek Egitamuaren Memorian garatuta eta bertako dokumentazio grafikoan eskematikoki identifikatuta daude (5.3

Antolamendu Planoa: “*Oinarrizko azpiegiturak. Elektrizitatea-gasa-telekomunikazioak*”). Udal-planeamenduek aintzat hartu beharko dituzte, azpiegiturak betearazteko proiektuekin bat datorren lurzoruaren mugaketaren eta kalifikazioaren ondoreetarako.

- Telekomunikazio-azpiegitura

Telekomunikazio-azpiegiturei dagokienez, Durangoko Eskualde Egiturari Zuntz Optikoko Komunikazioko Enbor Sarearen zati batek ematen dio zerbitzua, eta Lurraldearen Zatiko Planak azpiegitura hori sustatzea proposatzen du, berori Eskualde Egituraren barruko gune nagusi guztietara heltzeko.

Telekomunikazio-sare honen trazatua modu eskematikoan adierazita dago LZPko dokumentazio grafikoan (5.3 Antolamendu Planoa: “*Oinarrizko azpiegiturak. Elektrizitatea-gasa-telekomunikazioak*”). Udal-planeamenduek kontuan hartu beharko dute sare hori, betearazpen-proiektuarekin bat datorren lurzoruaren bidezko mugaketa egiteko.

### 2.1.6. Biztanleen bizi-kalitaterako eta hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak

Kapitulu honen barruan, Lurraldearen Zatiko Planak sustatu nahi duen biztanleen bizi-kalitatean eta hiri-kalitatean eragin handia duten hiru atal sartuko dira; hain zuzen ere, hiri-berrikuntzarako estrategiak, kultura-ondarearen antolamendua (gizartearen erreferentetzat) eta biztanleen memoria (batik bat, hirien bizitasunaren mantenamenduari dagokionez), eta ekipamenduen antolamendua, oinarrizko ekipamendu komunitarioak espazio asketzat, bide-azpiegituratzat eta hiriaren zerbitzurako azpiegituratzat egokitzeari dagokionez; halaber, egokitu egingo dira gizarte-, kultura- edo hezkuntza-ekipamendurako bideratzen diren eraikin publikoak eta pribatuak.

Hiri-berrikuntzako estrategiak suspertu, birmoldatu edo birgaitu beharreko eremuetan kokatzen eta zehazten dira, horiek ez narriatzeko edo suspertu ahal izateko, Araudiko VII. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera.

Ekipamenduen antolamenduaren arauketa berezia, bestalde, LZPren Araudiko VII. tituluko II. kapituluan ezarrita dago.

Kultura-ondarearen antolamenduaren arauketa berezia LZPren Araudiko VII. tituluko III. kapituluan ezarrita dago.

Hiri-berrikuntzako estrategiak, eremu bakoitzean eragina dutenak, 7.1 Antolamendu Planoan adierazita daude: “*Hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak. Berrikuntza-estrategiak*”.

Ekipamendu-sistemaren lurralde-estrategia 7.2 Antolamendu Planoan jasota dago: “*Hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak. Ekipamenduak*”.

Kultura-ondareari buruzko informazioa, azkenik, 2. Antolamendu Planoan jasota dago: “*Paisaiaren irisgarritasuna eta kultura-ondarea*”.

### 2.1.7 Planeamenduen bateragarritasuna

Lurraldearekiko Zati- Egitamuak planeamenduen bateragarritasuna arautzen du, Araudiko VIII. tituluko I. kapituluan, eta Planeamenduen Bateragarritasun Eremuen sailkapen hau ezartzen du:

a) Bateragarritasun orokorreko eremuak
b) Bateragarritasun Espezifikoaren eremuak
c) Trazatuaren bateragarritasun-eremuak

a) Bateragarritasun orokorreko eremuak: Beraien arteko Eremu Funtzionaleko udalerri guztiei eta beste Eremu Funtzionalen inguruko udalerriekin aplikagarri, bai Bizkaiko Lurralde Historikokoari bai beste Lurralde Historiko mugakideei dagozkienak. Helburua, Ingurune

Naturalaren Kategorizazioa eta honekiko Gainjarritako Baldintzatzaileek bere definizio grafikoan aipatutako udalerrien arteko jarraipena, eta bere erregulazioari dagokionez koherentzia edukitzea.

b) Bateragarritasun Espezifikoaren Eremuak: zehazki udal eremua gailentzen duten urbano jarraituak existitzen diren haietan, zeintzuen gune mugakideetan modu orokorrean bere antolamendu estrukturala koordinatzeko beharra antzematen den.

- DURANGO-ABADIÑO:

  Eguzkitza-inguruan, Durangoko poligono homonimoa handitzeari loturiko jarduera ekonomikoaren okupazioa mugatzeko eremua aurreikusten da. Eremu berriaren barruan, bi udalerrietako lurrak sartzen dira.

  Okupazioaren mugako eremuaren garapenak, bidezko udal-erabakiaren arabera, irizpide koordinatuak izango ditu antolamendu formalari, espazio askeen sistemei eta, batik bat, bide-azpiegiturei dagokienez, eta inguruaren irisgarritasun-arazoa konpondu beharko du.

c) Trazatuaren bateragarritasun-eremuak: Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen berriek ezaugarri desberdineko egiturako sareak edo azpiegiturak sartzen dituzte, eta horien trazatua zehatz bateratu behar da. LZPk honako eremu hauek jasotzen ditu:

- Amorebieta eta Lemoa (N-240 Boroa-Lemoa): LZPren dokumentazio grafikoan jasotako Boroa-Lemoa azpiegituraren eskema. A-8 autobideak Zornotzan duen lotunetik Lemoako udal mugartearen hegoaldeko mugan dagoen bidearekiko lotunera.

- Durango-Abadiño-Apatamonasterio-Elorrio (N-636 Apatamonasterio-Kanpazar): Azpiegituraren eskema, Lebario-Apatamonasterio-Kanpazar lotura, LZEko dokumentazio grafikoan bildua. Lehen ordenako konexioa Goi Debarekin.

- Aukerako mugikortasuna: izen bereko antolamendu planoan proposaturiko aukerako mugikortasun-sareko azpiegituraren eskema.
  Eskema horren garapen xehatua eta kokaleku espaziala egokitu egin daitezke, planeamenduko tresna egokiak erabilita; beraz, bermatu egingo da zehaztapen hori bi udalerrietan egitea, azpiegiturari jarraipena eman ahal izateko.

- *Paisaiaren Ibai Sistema*: izen bereko antolamendu-planoan proposaturiko Paisaiaren Ibai Sistema azpiegituraren eskema.
  Inplikaturiko udalek modu integratuan kudeatu beharko dute paisaiaren ibai-igarobide hori. Lehenengo eta behin, proposamenen antolamendu xehatua inplikaturiko udal guztiek batera egitea bermatuko da.

## 2.2 UDALERRI BAKOITZAREN GAINEKO ERAGINAK

Aurreko ataletan adierazitako edo LZEren dokumentuetan dauden zehaztapenen kalterik gabe, ondoren hurrengo alderdiei dagozkien zehaztapen hauetariko batzuk azpimarratzen dira:

- Bizitegietarako lurzorua

Aurreikusitako 8 urteko epera udalerri bakoitzaren udalaren planteamendurako behin behineko zenbatekotzea ematen da:

Era berean, aurreikusitako 8 urteko epera udalerri bakoitzaren udalaren planteamendurako behin behineko mugak gehitzen dira, maximo eta minimoak:

- Ekintza ekonomikoen lurzorua

Aurreikusitako 8 urterako ereduaren zenbatekotzea ematen da.

Era berean, aurreikusitako 8 urteko eperako udalerri bakoitzaren udal planeamendurako eskaintzaren mugak ematen dira, maximoak eta minimoak.

- Planeamenduen bateragarritasuna.

## 2.2.1. ABADIÑO

- **Bizitegietarako lurzorua**

EREDUKO ETXEBIZITZEN BEHIN-BEHINEKO KUANTIFIKAZIOA, 8 URTERA

| ABADIÑO<br>**EREDUAREN BEHIN-BEHINEKO KUANTIFIKAZIOA**<br>8 urteko aldirako etxebizitza kopuru garbia | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aldia** | **Hazkunde hautakorra (A)** | **Barne-berroreka (B)** | **Beharrizan endogenoak (C)** | **Bigarren egoitza (D)** | **GUZTIRA** |
| 8 urte | 100 | 0 | 256 | 0 | **356** |

8 urteko epera LZPren Eredutik behin betiko zenbatekotzerako metereologia:

- **A**, **B** eta **D** osagaien zenbatekoa zehaztua eta loteslea da.
- **C** osagaia bere planteamendua berrikusten duen udalerri bakoitzak zehaztua izan beharko da, Familiaren Tamainaren Batez bestekoaren eremua barne, zeinetarako urteko 0,03ko hazkunde iraunkorraren hipotesia planteatzen den. Honen kalkulua hurrengo formularekin bat egingo da:

$$C = B/(FBT-0,24) - B/FBT$$

P eta FBT, populazioa eta berrikuspen urtean udalerriko familien batez besteko tamaina dira eta 0,24, 8 urteren multzoan familia tamainaren murrizketa.

Erantsitako taularen emaitzak biztanleria eta 2008 urteko familiaren batez besteko tamainatik abiatuta lortu dira.

**8 URTERAKO ETXEBIZITZEN BEHIN-BEHINEKO ESKAINTZARAKO GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO MUGAK**

| **ABADIÑO**<br>**8 URTERAKO ETXEBIZITZEN BEHIN-BEHINEKO ESKAINTZARAKO GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO MUGAK** | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aldia | A*3 | A*1,5 | B*3 | **B*1,5** | **C*3** | **C*1,5** | D*3 | D*1,5 | ESKAINTZA GUZTIRA | |
| | Gehi. | Gutxi. | Gehi. | Gutxi. | Gehi. | Gutxi. | Gehi. | Gutxi. | Gehi. | Gutxi. |
| 8 urte | 300 | 150 | 0 | 0 | 768 | 384 | 0 | 0 | 1.068 | 534 |

Udal Planeamenduak eskaintza-koefizientea aukeratuko du eta hori, hurrenez hurren, 3ko eta 1,5eko gehieneko eta gutxieneko balioen artean egongo da beti.

Metodologia aplikagarria, alde batetik, **A**, **B** eta **D** osagaien balio iraunkorren 3 eta 1,5 koefizienteekin biderkatzean oinarritzen da. **C** balioa, koefiziente horiekin biderkatu baino lehen, berriro kalkulatu beharko da udalerri bakoitzerako, honen aurreko koadroan ezarri den bezala

8 urterako udal planteamenduaren etxebizitzen behin betiko zenbatekotzerako eskaintzaren mugak maximoak eta minimoak.

- **8 urterako ekintza ekonomikoen lurzorua**

**EREDUAREN KUANTIFIKAZIOA 8 URTERA**

| ABADIÑO | | | |
|---|---|---|---|
| Aldia | Industriakoa (Ha.ak) | Tertziario (Ha.ak) | GUZTIRA (Ha.ak) |
| 8 urte | 4,68 | 2,45 | 7,13 |

Adierazitako lurzoruaren zenbatekotzea 8 urteko epealdirako bere programazioa ezartzen duten udal planteamenduetan bermatu beharko litzatekeena da.

**ESKAINTZAREN GEHIENEKO MUGA 8 URTERAKO**

| Aldia | Industriakoa (Ha.ak) | Tertziario (Ha.ak) | GUZTIRA (Ha.ak) |
|---|---|---|---|
| 8 urte | 14,03 | 7,35 | 21,38 |

**ESKAINTZAREN GUTXIENEKO MUGA 8 URTERAKO**

| Aldia | Industriakoa (Ha.ak) | Tertziario (Ha.ak) | GUZTIRA (Ha.ak) |
|---|---|---|---|
| 8 urte | 7,01 | 3,68 | 10,69 |

**8 URTERAKO ESKAINTZAREN ZEHAZTAPENA**

Udal Planeamenduak eskaintza-koefizientea aukeratuko du plangintzaren 8 urteko aldirako, eta hori, hurrenez hurren, 3ko eta 1,5eko gehieneko eta gutxieneko balioen artean egongo da beti.

- **Planeamenduen bateragarritasuna**

  a) Bateragarritasun orokorreko eremuak
  - Inguru Naturalaren Kategorizazioa
  - Kategorizazioari Baldintza Gainjarriak

  b) Bateragarritasun Espezifikoaren Eremuak
  - Abadiño eta Durango

  c) Trazatuaren bateragarritasun-eremuak
  - N-636 Lebario-apatamonasterio-Kanpazar
  - Aukerako mugikortasuna
LZPko xedapenak aplikagarriak dira Durangoko Eskualde Egituran, eta horren barruan udalerri hauek sartzen dira: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Indarraldi mugagabea izango du, arauzko arautzat, eta Onespen Dekretua argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean. LZPren balizko aldaketa eta ikuskapena, berriz, interes orokorreko zergatietan oinarrituko da, eta, horretarako, onespenerako jarraituriko prozedura bera aplikatuko da. Nolanahi ere, LZP ikuskatu egingo da behin betiko onespenetik zortzi urte igarotzen direnean.

### 1.2. Durangoko LZPren helburuak.

LZPren helburuen artean, bereizgarriak dira, alde batetik, LAAetatik zuzenean sortutako helburu orokorrak, eta bestetik, xedetzat inguruneko ingurumen-balioak sustatzea duten ingurumen-helburuak. Hala eta guztiz ere, horiek guztiak honako printzipio komun hauetan euskarritzen dira:

- Lurraldea eta paisaia euskarri hutsak direla dioen ideia gainditzea.
- Ingurumena garapen ekonomikorako eta bizitza-kalitaterako funtsezko faktoretzat hartzea.
- Politika sektorial eta lurralde-politika guztietan ingurumena babesteko neurriak integratzearen komenigarritasuna.
- Eragin txarrak ekiditean soilik oinarritzen den betiko jarrera gainditzea.

### 1.2.1. Helburu orokorrak.

Gizartearen nahiz lurraldearen arloko aldagaiak aztertu eta horien diagnostikoa egin ondoren, eta DEErako lurralde-ereduaren oinarriak zehaztutakoan, jarduketek izan beharreko helburu orokorrak honako hauek dira:

1. Erabileren euskarritzat balio duten espazioak adieraztea, proposaturiko diagnostikoarekin eta lurralde-ereduarekin modu koherentean.
2. Durangoko Eskualde egitura indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta, hain zuzen ere, Bizkaiko lurraldea artikulatzeko funtsezko piezatzat.
3. Haran-hondoko hirigintza handiaren eta baserrian oinarrituriko nekazaritza-jardueraren arteko bizikidetza zaintzea.
4. Lurraldearen erabilera zuhurrean oinarrituriko hiri-garapena sustatzea:
    - 4.1. Gune tradizionalen nortasuna eta ondarea kontserbatzea.
    - 4.2. Hazkunde barreiatua mugatzea eta kontrolatzea.
    - 4.3. Dinamika demografikoaren eraginezko beharrizanei aurre egiteko behar den hirigintza-hazkunderako erreserbatu beharreko azalerak kuantifikatzea.
    - 4.4. Ekipamenduak eta zerbitzuak orekaz banatzea.
5. Ibaizabalen Igarobidearen lehiakortasun- eta birkualifikazio-elementuak indartzea.
    - 5.1. Oraingo industria-klusterra indartzea.
    - 5.2. Enpresei kalitatezko zerbitzuak eskaintzea.
6. Trenbidea sustatzea, Eskualde Egitura artikulatzeko elementutzat.
7. Baliabide naturalak eta baserriaren bideragarritasuna babestea.

### 1.2.2. Ingurumen-helburuak.

DEEko ingurumenaren arazoak eta aukerak aintzat hartuta, LZPk honako helburu eta estrategia hauek ezarri ditu:

1. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea.
2. Produkzioko baso-jarduera arrazionalizatzea eta hobetzea.
3. Interes fisiko eta biologiko handiko espazio, elementu eta prozesu naturalak kontserbatzea, hobetzea eta suspertzea.
4. Uren kalitatearen mailak hobetzea eta suspertzea.
5. Ingurumen-arrisku natural nagusiak ahalik eta gehien murriztea.
6. Natura- eta landa-espazioen erabilera publikoa sustatzea.
7. Natura- eta landa-paisaia zaintzea, hobetzea eta suspertzea.

## 1.3. Aukeren azterketa.

LZPren idazketaren fasean, behin-behineko onespenaren fasean, ez dago aukerako lurralde-ereduen multzorik; hain zuzen ere, erabakitze-prozesu luze baten ondorioz, eragile publikoekin eta pribatuekin elkarrizketak egin ostean, eta aurretik adosturiko lurralde eremu baten ondoren, 2009ko azaroan eginiko LZPren azken formulazioan proposaturikoak ebaluatu dira, ukituriko erakundeek aurkezturiko alegazioak eta proposamenak aintzat hartu eta gero. Hori gorabehera eta ulermena erraztearen ondoreetarako aurreko fasetan planteatu diren alternatibak aipatzen dira (aurrerakuntza eta hasierako onespena); horren xedea LZPren aurreko faseetan zenbatetsitako ingurumeneko eraginak murrizteko bidezkotzat jo ziren aurrearretazko neurriak eta neurri zuzentzaileek horien gainean izan duten eragina ebaluatzea da.

Halaber, “0 aukera” izenekoa aztertzea ere ez da interesgarria, hori Ingurumeneko Ebaluazioak erreferentziatzat hartzen duen gunean eratzen baita beti, edozein gizarte- edo ingurumen-bektoreren aurretiazko egoerarekin identifikatzen delako.

### 1.4. LZPn jasotako jarduketen laburpena.

Durangoko LZPk aurreikusita dagoen lurralde-eredua lortzeko sustaturiko ekintzak bi multzo handitan zatitu ahal dira. Lehenengo multzoa jarduketa handiek eta sektoreko jarduketa-ildoek osatzen dute, bigarren multzoa, bestalde, ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriek eta gainjarritako baldintzek osatzen dute eta inguru naturaleko osagai nabarmenek.

#### 1.4.1. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planean jasotako jarduketen laburpena.

LZPren Antolamendu Memoriak jarduketa eta esku hartzeko ildo batzuk ezartzen ditu, horiek jasotzen dituen lurraldeko erabileren arabera:

- **NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA.** Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzeko eta sustatzeko jarduketak eta esku-hartzeko ildoak, kontuan hartuta baliabide naturalen erabileran, paisaiaren kudeaketan eta lurraldearen identitatean dituzten eginkizunak. Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planak bere baitan biltzen ditu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planak 2000-2006ko epealdirako nahiz 2007-2013ko epealdirako dakartzan ekintza guztiak.

- **BASOA.** LZPk onartu egiten ditu baso-landaketen garrantzi ekonomikoa eta *Mendiei eta babesturiko eremu naturalen administrazioari* buruzko 3/94 Foru Arauak ezarritako baldintzak eta arlo horretako beste arau eta

foru dekretu batzuk, baita Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Ingurune Naturaleko Lurraldearen Arloko Plana eta Euskal Basogintza Plana ere.

- **INGURUMEN BABESA.** Aparteko Babeseko Lurzoruak kontserbatzeko, hobetzeko eta, hala denean, lehengoratzeko jarraibide eta irizpide egokiak ezarri dira, baita babestutako natur espazioak aparteko balioa duten beste batzuen arteko lotura bermatzeko ere. Hain zuzen ere, hauxe lortzeko jarduketak sustatzen dira:
  - Babesturiko espazio naturalen arteko lotura bermatzea.
  - Hostozabal autoktonoen masak mantentzea.
  - Narriaturiko isurialdeak eta erabiltzen ez diren harrobiak suspertzea.
  - Mendiko larreen erabilera eta mantenamendua bermatzea.
  - Gutxieneko emari ekologikoen zehaztapena eta errespetua sustatzea.
  - Saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak garatzea.
  - Nekazaritza-kutsaduraren mailak murriztea.
  - Akuiferoak zaintzeko sistema ezartzea.
  - Higadura- eta uholde-arriskuak ahalik eta gehien murriztea.

  Jarduketa-multzo horren helburuak indartu egingo dira, DEEko ingurune naturalerako ezarritako antolamendu-kategorietako eta gainjarritako baldintzetako xedapenen bitartez.

- **AISIALDIA ETA JOLASALDIA.** Lurraldea sustatzeko eta erabilera publikoa garatzeko jarduketak, paisaia-ibilbideen eta harrerako azpiegituren gaineko proposamenei lotutakoak, baita landa-turismoko jarduerei lotutakoak ere.

- **HIRIGINTZA HAZKUNDEA.** Lurraldearen Zatiko Planak, gizarte-demografiako aldagaiak eta diagnostikoa abiapuntu izanda, egoitzako eta etxebizitzako lurzoruaren beharrak zehazten ditu eta proposamenak egiten ditu LAAekin eta proposaturiko lurralde ereduarekin bat etorriz. LAAek, berriz, Bilboko Eskualde Egiturarako eta Deba Beheko Eskualde Egiturarako ezarritako xurgatze-ahalmena hartzen dute bere gain. 2008-2024 epealdirako beharrezko egoitza-lurzoruaren kuantifikazioa ezarri da nahikoa malgua den irizpide multzo batekin, eta etxebizitza publikoaren beharrizanei aurre egiteko sailkatu beharreko lurzoruaren ehunekoa zehaztu da.

Proposaturiko lurralde-ereduak egindako apustuaren arabera, egoitza-garapen berriko lehentasunezko eremuak Ibaizabalen ardatzeko igarobidean hutsik dauden lekuetan kokatuko dira; hala, indartu egingo litzateke ezarkuntzen sistema oraingo biztanle-guneen inguruko hazkunde trinko baten ereduaren bidez, betiere lurzorua moduko baliabide baliotsuaren kontsumoa saihestuz.

Bestalde, Ibaizabalen igarobidearen barruan, Durango-Abadiño guneek hiri-egitura integratua osatzen dute, eta horrek gaitasuna dauka Eskualde Egiturako udalerriz gaindiko zerbitzuen erdigunea izateko, ageriko egoitza-bokazioarekin. Hala ere, udalerri horietako lurzoruen okupazio maila altua dela-eta, Ezarkuntza Sistemari buruzko antolamendu-planoan ageri diren egoitza hazkundeko eremuen zati handi bat Eskualde Egiturako gainerako udalerrietan dago kokatuta hala nola Abadiñon, Elorrion eta Berrizen, eta osatu egiten da Iurreta, Durango, Izurtza, Atxondo eta Zaldibarko egoitza lurzorua.

Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planak, LAAetan emandako jarraibideen arabera, egoitza hazkunderako eremuen neurriak ematen ditu "hazkunde selektibo" deritzonaren arabera, eta behar endogenoengatik aintzat harturiko etxebizitza gehigarriak eta Bilboko EEtik datozenak bildu dira udalerri hauetan: Abadiño (200), Amorebieta (300) eta Iurreta (100). Eta bestetik, Deba Beheko Eskualde Egituratik datozenak (60) Zaldibarren.

Lurraldearen Zatiko Planak Eskualdeko Egiturarako ezarritako egoitza garapen berriaren lehentasunezko eremuen gaineko proposamena egin du, dokumentazio grafikoarekin bat etorriz:

- Dentsitate altuko egoitza garapenerako zazpi eremu ezarri dira (50-75 etxebizitza/Ha.), bat Iurretako udal-mugartearen barruan, Durangoko hirigunearen I-ko ertzaren ondoan; hiru Abadiñoko udal-mugartean, hirigunearen HEn, BI-632 errepidearen ondoan; bi Berrizko M-n eta bat Durangoko H-n.
- Dentsitate ertaineko udal garapenak (30-50 etxebizitza/Ha.) lurraldeko hainbat eremutan kokatzen dira (hamar eremu), Zaldibarko hirigunearen inguruan, Elorrioko hirigunearen I-n, Abadiñoko HM-ko banda luze batean, Atxondoko hirigunearen H-ko orban txiki batean, Izurtzako I-n eta Berrizko M-n, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eta hirigunearen artean.

Bestalde, LZPk diziplinatu egin nahi ditu barreiaturiko eraikuntza-garapen berriak, horiek paisaian eragin gogorra izan eta kostu oso altuak baitituzte eraginpeko udalerrietarako. Azkenik, ezarkuntzen iraunkortasunerako lagungarriak diren jarraibideak proposatzen dira: guneak hobetzea eta birgaitzea, ondarea babestea, higiezinak suspertzea, etab.

- **AZPIEGITURAK.** LZPk azpiegituren arloko jarduketa garrantzitsuak ditu jasota, eta horiek eragina dute Ibaizabalen ardatzaren inguruan artikulaturiko bide-sarean. Ekintza horiek Mugikortasunari buruzko Antolamendu Planoan jaso dira, non, gainera, Amorebietan, Iurretako hirigunean, Durangoko hirigunean, Lebario-Apatamonasterion, Iguria-Kanpazarren eta Durango-Izurtzako ardatzean jarduteko estrategiaren eremuak zehazten diren. Jarduketa nagusiak honelaxe eman dira banakatuta:

**Errepide azpiegitura berriak ezartzea:** oraingo sareari funtzionaltasun hobea emateko.

Errepide tarte berriak

- N-240, Boroa-Lemoa autobidea.
- N-636, trazatu berria Lebario eta Apatamonasterio artean.
- N-63, trazatu berria Iguria eta Kanpazar artean.
- BI-635, tunela Autzaganen.

Lotune berriak

- Hobekuntzak BI-2632A-8 autobidean, N-240 errepidearekiko lotunean.
- A-8, Lebarioko lotunea.

**Oraingo azpiegiturak hobetzea.**

- A-8, hirugarren erreia Iurreta eta Lebario artean.
- BI-635, trazatua hobetzea eta plataforma handitzea Amorebieta eta Autzagane artean.
- N-634, hiri-inguruko bide bihurtzea Boroa-Durango eta Matiena-Zaldibarko zatietan.

- N-634, jarduketa N-634 errepideko zeharbidean lurretan, Durangoko hiri jarraipena ahalbidetuz.
- Sareko gainerako bideetan, unean uneko egokitze- eta zabaltze-ekintzak.

- **Hiri-bide perimetral berriak ezartzea:** hiriguneetan bertan aukerako ibilbideak sortzeko, hiriguneetako zenbait aldetan motordun trafikoak gutxitu edo galarazte aldera. Jarduketa hauek aurreikusten dira:
  - Durangoko hegoaldeko biribilgunea ixtea Montorreta eta BI-623 artean.
  - BI-623, aukerako ibilbidea Izurtzan.
  - N-634, aukerako ibilbidea Olakueta-Berrizen.

**Igarotze-trafikoetatik askaturiko bideen tratamendua.**

a) <u>Hiri-inguruetako aldeetan.</u> Sekzioen gaineko uneko arazoak konpontzea, albokoetarako sarbideak, etab. Ez da aintzat hartu banda espezifikorik sartzea bizikleta edo oinezkoentzat; izan ere, eremu horietan dituzten ibilbideek jarraipen ziurtatua eduki behar dute Aukerako Mugikortasun Sarearen bidez.

- BI-634, hiri-inguruko bide bihurtzea Matienaren inguruan.
- N-636, ardatz bideratzaile gisa egokitzea Muntsaratz eta Apatamonasterio artean.
- BI-3331, hiri-inguruko bide bihurtzea Elorrio inguruan.

b) <u>Hiriguneetan (hiriko tarteetan eta zeharbideetan).</u> Ibilgailuentzako trafikoa eta hiriko bizitza bateratzeko baldintzak hobetuz, trafikoa moteltzeko neurrien bidez eta diseinu eta materialaren banako tratamenduaren bidez. Bizikletaz eta oinez egiten diren joan-etorriak, Aukerako Mugikortasun Sarearen trazatua edozein dela ere, bidearen sekzioan horretarako jarriko diren banda espezifikoetan izango dira. Gehieneko zentralitateko aldeetan,

oinezkoen eta bizikleten erabilera errazteko jarduketak izango dira ibilgailuen trafikoa baldintzatuz, trafikoa moteltzeko neurrien bidez eta, aukerako ibilbideak aurreikusten badira, trafiko hori garraio publikoetara murriztuz edo, are gehiago, soilik oinezkoentzako gune bihurtuz. Kasu hauetan aurreikusi da jarduketa hori:

- N-634, hiri-bide bihurtzea Iurretan.
- N-634, hiri-bide bihurtzea Berrizen.
- BI-623, hiri-bide bihurtzea Izurtzan.
- N-636, hiri-bide bihurtzea Durango eta Muntsaratz artean.

**Hiriko tarteak eta zeharbideak egokitzea.**

Trafikoaren intentsitatea txikia denean, halako jarduketen helburua ibilgailuen trafikoa eta ukituriko hiriguneko hiri-bizitza bateratzeko baldintzak hobetzea da, trafikoa moteltzeko neurrien bidez eta kasuan kasuko bidearen diseinu eta materialaren banako tratamenduaren bidez. Halaxe gertatzen da zeharbide hauetan: BI-635 (Amorebietan), BI-3323 (Matienan), BI-3321 (Elorrion eta Berrizen), BI-3340 (Berrizen) eta BI-3341 (Garain).

Kasu berezia da BI-623 errepidekoa Mañarian eta, batez ere, N-634 errepidekoa Zaldibarren, non, trafiko-fluxu nabarmenak aurreikusi arren eta oraingo zeharbideetarako aukerako ibilbidea planteatzea arazotsua dela-eta, aurreko kasuetan aipaturikoen antzeko neurriak hartu beharko baitira.

LZPk ukaezintzat jotzen du trenbide azpiegituraren egokitasuna Durangoko Eskualde Egiturarako, baina funtzionaltasuna hobetzeko jarduketak burutu beharko lirateke. Horretarako, Trenbide Lurraldearen

Arloko Planaren jarduketa guztiak hartzen ditu bere gain. Hauexek dira zehazki:

- Bilbo-Donostiako trenbidea bikoiztea Amorebieta-Eibarko tartean.
- Portu Lehorra jartzea Amorebieta-Etxanon, Bermeorekin lotuta, eta zabalera metrikoko trenbidearen bidezkoa.
- Durangoko eta Zornotzako lurpeko geltokiak, eta horretarako, lurpean sartuko da trenbidea Santa Apolonia auzunearen mendebaldean. Jarduketa horri esker, hirigunea birgaitu ahal izango da.
- Trenbideak berregituratzea eta lurperatzea Euskotrenek Amorebietan duen linean.
- LZPk bere gain hartzen du abiadura handiko trena ezartzea, baita Eubako eskualdeko geltoki intermodala ere.

LZPk, oro har, garraio publikoaren aldeko apustua egiten du, eta garrantzi berezia ematen dio trenbide azpiegiturari, baina horrelakorik ez dagoenean, autobusa aukeratu beharko da, tren geltokiekiko intermodalitatea behar bezala koordinatuz (Amorebieta, Euba, Matiena, Berriz, Zaldibar).

Horregatik, LZPk garraio politikak garatzearen aldeko apustua egiten du, zertarako-eta, Aukerako Mugikortasun Sarearen bidez (trena, autobusa, bizikleta eta oinezkoak), ibilgailuak ez beste aukerako garraioarekin sartu ahal izateko DEEko zentro funtzionaletan koordinatuta betiere. Hartara, bidaiari eta merkantzietarako trukagailuak eta disuasio-aparkalekuak ezartzea planteatzen da.

- **OINARRIZKO AZPIEGITURAK:**
  - **Ur-hornidura**; LZPk printzipio orokorrak ezartzen ditu, esate baterako, azpiegituren ezagupena sustatzea eta horien funtzionamendua

optimizatzea; halaber, Amorebieta-Euba eta Iurreta-Durango eremuko sistema orokorrak indartzea.

- **Saneamendua;** jarduketa-ildoen helburuak aurreikusteko moduko garapenetan inplementatzea eta kontrolik gabeko isurketak zuzentzea dira.
- **Energia**; helburu orokorra erabilera arrazionala sustatzea da. Jasotakoaren arabera, beharrezkoa da tentsio altuko lineen eraginak murriztea eta gas-azpiegitura sustatzea.
- **Informazio-azpiegiturak**; jarduketak zuntz optikoko enbor-sareen hedapena sustatzera bideratuko dira.

▪ **EKIPAMENDUAK.** Helburua zuzkidura-eskaintza biztanleen beharrizan aldakorretara egokitzea da, kontuan hartuta biztanleria Ibaizabalen hiriko nahiz industriako igarobidean eta horren isurialdeetako landaguneetan pilatuta dagoela. Horretarako, LZPk leku garrantzitsuko eredua dauka eta horrek eskualdeko leku nagusia du, Durango, baita bigarren mailako bi leku nagusi ere, Amorebieta-Etxano eta Elorrio. Ekipamenduan lurralde antolamendua Durangoko Eskualde Egituraren zuzkiduren estrategiari buruzko planoan dago jasota.

▪ **JARDUERA EKONOMIKOA.** LZPren asmoa Ibaizabaleko igarobide osoaren lehiakortasunerako eta birkalifikaziorako elementuak indartzea da lurraldeko zeharkako ekimenen bidez, oraingo industria-klusterra indartuz eta enpresentzako zerbitzuak garatuz. Jarduera ekonomikoetarako beharrei dagokienez, Jarduera Ekonomiko eta Merkataritza-zuzkiduretarako Lurraldearen Arloko Planak erabilera horretarako lurzoru publikoa sortzea ezarri du, hain zuzen 141,95 Ha-koa, Eskualde Egituraren beharretarako. Funtsean Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon

kokatzen dira; lurzoru tertziarioko eskakizunak, berriz, Durangon, Abadiñon eta Elorrion izango lirateke. Irisgarritasun oneko industrialde txikiak sustatu nahi dira, eta Amorebieta-Etxano, Durango, Abadiño, Elorrioko igarobideko lurrak proposatzen dira. Bigarren mailan, berriz, Durangoko zeharkako ardatza eta Iurreta eta Izurtza udalerrietarako haren hedapena. Durangoko Lurraldearen Zatiko Planak dakarren Jarduera Ekonomikoetarako Antolamendu-planoak lehentasunezko garapen berri hauek ezarri ditu jarduera ekonomikoetarako:

- Amorebieta-Etxano, hiru lursail, bata Eubaren inguruan, azalera handikoa. Erabilera mistoa izan dezakeen lursail bat.
- Iurreta, A-8aren ondoko hiru lursail
- Durango, lursail txikiak hirigunearen ekialdean.
- Abadiño, lursail bat.
- Elorrio, hiru lursail.
- Berriz, bi lursail.

### 1.4.2. Ingurune Naturala antolatzen duten kategoriak.

Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren antolamenduari buruzko txostenak zenbait antolamendu-kategoria zehaztu ditu ingurune fisikorako. Hartara, erabilera espezifikoak arautu eta aurreikusitako helburuak lortzeko horietan martxan jarri beharko diren estrategiak eta jarduketa-ildoak proposatzen ditu. Bestalde, zenbait baldintzatzaile gainjarri ezarri ditu jarduerak arautzeko alde bakoitzak duen arrisku edo hauskortasun mailaren arabera. Hauexek dira LZP aplikatzearen eremuan ezarritako antolamendu-kategoriak:

**A. BABES APARTEKO LURZORUAK:**

Kategoria honen helburua Eskualde Egiturako elementu, prozesu eta balio natural nagusiak kontserbatzea da. Honako hauek aplikatzen zaizkie:

Babesturiko Eremu Naturalak, interes naturaleko eremuak, kontserbazio-egoera oneko ibai-multzoak, barruko zona hezeak, landaredia bereziko eremuak eta, oro har, ekologiaren, kulturaren nahiz paisaiaren aldetik balio handia duten elementu guztiak. Kategoria honen barruan, honako azpikategoria hauek daude:

a) **Babesturiko Eremu Naturalak eta Elementu Bereziak.**
- Babesturiko Eremu Naturalak
- Urdaibai Biosferaren Erreserba.
- Aparteko zuhaitza: Garaiko artea.

b) **Interes naturaleko eremuak**.
- LAAek proposaturiko Natur Intereseko Eremuak: Udalaitzeko Natur Intereseko Eremua.
- Baso autoktonoak (hariztiak, ameztiak, pagadiak eta artadiak).
- Mendiko larreak.

c) **Interes hidrologikoa duten eremuak**.
- I. taldeko gune hezeak. Urkiolako zingira.

**B. GAINAZALEKO UREN BABESA:**

EAEko Ibai eta Erreka Ertzen LAPen aldaketak babesturiko ubideak dakartza. Horretarako, gainazaleko eta lurpeko uren kalitatea mantentzea eta, hala denean, berreskuratzea proposatzen da, eta osotasunean hartuko dira haien tamaina baliabide naturala eta ingurumen-bektorea diren aldetik. Helburua ibai- eta erreka-ertzak babestea da, higadura eta, bide batez, uholdeen eraginak saihesteko. Hartara, hauexek agerrarazi dira kartografian: gainazaleko uren babesaren mugak, ondo kontserbaturiko ibarreko landaredia duten ertzak, leheneratu beharra duten ertzak eta hiriguneetan bermatu beharreko ibai ertzak.

**C. BABESEKO LURZORUAK: BASOKO, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO ALDEAK ETA LANDAZABALAK**

- **a) Nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala:** balio estrategiko handiko landazabalak eta trantsizioko landa paisaiak azpikategoriekin osatuta. Bi azpikategoria horien helburua nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea da, eta, *balio handiko landazabalak* azpikategoriaren barruan, nekazaritza- eta abeltzaintza jarduerak euskarritzeko eremurik garrantzitsuenak sartzen dira.
- **b) Basoa:** Basoko landaketak eta sastrakak azpikategoriak dauzka barruan, eta, horretan, euren oraingo erabileraren eraginez espezie aloktonoko zuhaitz-landaketekin eta *sastrakekin* okupaturik dauden lur guztiak sartzen dira.

**D. LANDAGUNEEN KATEGORIA**

Honelaxe definitzen da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legearen 29. artikuluaren arabera: “Espazio publiko baten inguruan sei eta hogeita bost bitarteko baserri talde bat, baserriok bildu eta izaera ematen diena”. Landa eraikuntzarekin lotzen ditu eta eremuko paisaia bereizgarriari eustea bermatzen du baserriak, eta ezaugarri erakargarria da inguruko turismoa garatzeari begira.

### 1.4.3. Gainjarritako baldintzak

Modu osagarrian, eta zehazturiko Antolamendu Kategoriei gainjarrita, LZPk Gainjarritako Baldintzak ezartzen ditu, jarduerak garatzeko modua mugatzeko eta arautzeko, aintzat hartuta eremu bakoitzaren arrisku mota edo hauskortasun maila. Azpibanaketa hau egiten da horien gainean: gainjarritako

baldintzak, ingurumen-hobekuntzako ekintzak, gizarteko gainjarritako baldintzak eta ingurune naturalaren osagai nabarmenak.

**A. GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK**

EAEko Lurraldearen Arloko Planetik datozenak: Ibai eta Erreka Ertzen LAPen aldaketa eta Nekazaritza eta Abeltzaintzaren eta Ingurune Naturalaren LAP.

- Akuiferoak kutsatzeko gune zaurgarriak
- Gune higagarriak edo higadura arriskua duten guneak
- Gune ureztagarriak

**B. INGURUMENA HOBETZEKO EKINTZAK**

- Ingurumenaren hobekuntza: LZPk horrelakoak planteatu ditu alde narriatuetan, lur gutxi dutenetan edo gaur egun higadura handia dutenetan.
- Ingurumeneko hobekuntza gaur egun erabiltzen ez diren harrobietan eta hondakindegietan: hobekuntza horiek nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako LAPren emaitza dira. Zuzkiduretako erabileretarako egokitu daitezkeen jarduerarik gabeko harrobiak dira.
- Landaretza ondo artatua duten ibaietako ertzak: EAEko ibai eta errekastoen ertzen antolamendurako LAPk eman dituen zehaztapenak betez.
- Lehengoratu egin behar diren ibaietako ertzak: helburua historia osoan zehar lurralde honetan ibaiek izan duten izaera protagonista berreskuratzea da.
- Hiriguneetan bermatu behar diren ibaietako ertzak: ibai horiek hirigunea benetan egituratzen duten ardatzak dira eta eragin oso

handia dute inguruko bilbaren gainean eta, askotan, hiriaren kalitate horren benetako zuzeneko eragileak dira.

- Korridore ekologikoak: "EAEko korridore ekologikoen sarea" delakoaren proposamenetik abiatuta inkorporatu direnak.

**C. GIZARTEKO BALDINTZA GAINJARRIAK**

- Natura 2000 Sarea

**D. FLORA ETA FAUNARAKO INTERESEKO GUNEAK**

- Fauna Intereseko Guneak: Fauna eta landaretzako espezie mehatxatuen katalogoaren barruan agertzen diren espezieak. Katalogo hori Euskal Autonomia Erkidegoan Natura Artatzeari buruzko 16/94 Legearen bidez sortu zen.

### 1.4.4. Ingurune naturalaren osagai nabarmenak

LZPk elementu hauek jaso ditu bere lurralde ereduan, elementuok eraginetatik babeste aldera.

**E. INGURU NATURALAREN OSAGAI NABARMENAK**

- Interes Ekologikoko Eremuak: EAEko ingurumeneko kartografian jasota daudenak.
- Intereseko zuhaitzak

## 1.5. Eragina sor dezaketen jarduketen identifikazioa.

Durangoko Eskualde Egituraren LZPk eginiko antolamendu proposamenaren azterketarekin bat etorriz, oinarrizko hiru kapitulutan banatzen dira proposaturiko lurralde eredua betetzeko jarduketak, balizko ingurumen eragina dutenak: landagunea antolatzeko kategoriak, lehentasunezko eremuen proposamena egoitzako edo jarduera ekonomiko eta azpiegituretarako garapen berrietarako.

- **Antolamendu-kategoriak**. Kategoria horiek inplementatzen direnetik, DEEren lurraldeko sektore desberdinetako erabilerak arautuko dira, horien zehaztapenetik, irizpideetatik eta arauditik ondorioztaturiko ingurumen-inplikazioak aztertzeko.

- **Garapen berrietarako lehentasunezko eremuen proposamena**. Lurraldearen urbanizazioa egiteko, lurraldea iragazkaiztu eta ezabatu egin behar dira bertako ingurumen-balioak. Hori aintzat hartuta, alde batetik, ondo justifikatu behar da halako ekintzak hasi beharra, eta bestetik, ondo aukeratu behar dira lurraldean erabilera horiek jasotzeko egokienak diren sektoreak, ikuspegi sozioekonomikoa eta ingurumenekoa aintzat hartuta. Durangoko LZPk lehentasunezko eremuen multzoa proposatzen du, eta denen artean 700 ha. baino gehiago dituzte; dentsitate baxuko, altuko edo ertaineko egoitza eremuetan eta jarduera ekonomikoko eremuetan banatuta daude, eta eremu horiek lurraldean duten kokalekua Durangoko LZPko antolamendu-mapan ikusten da. Horien guztien gaineko gizarte-ingurumeneko balorazioa egingo da honako azterlan honetan.

- **Azpiegiturak**. Eguneroko bizitza aurrera eramateko, ekonomia garatzeko eta bizi-kalitatea bermatzeko behar diren azpiegituren

kokapen fisikoak, sarritan, eraginak sortzen ditu ingurumenean, eta horiek beti ezin dira justifikatu gizarte- edo ekonomia-onuretan oinarrituz. Horren arabera, LZPk bide- eta trenbide-azpiegituren arloan egiten dituen proposamenak ebaluatuko dira, Durangoko LZPko mugikortasun-mapan jasotakoa kontuan hartuz.

- **Ekipamenduak.** Ageriko arrazoietan oinarrituz, agiri honetan ez da aintzat hartu ekipamendu-proposamenek hiri-eremuetan duten ingurumen-eragina; hiriko edota industriako eremutik kanpo proposaturiko ekipamenduei dagokienez, LZPren proposamenak honako honen kartografian jasota daude: *Eskualde mailako ekipamenduetarako zuzkidura-estrategiako egiturazko ekintzak – Espazio askeen sistema*. Hala eta guztiz ere, une horretan halakoak daude eta, beraz, ez da bidezkoa horiek aztertzea (esate baterako *Aretx Amerikanoeta*, *Lisiar Rokeburu, Landaederra* eta *Neberondo* jolas-eremuak*)*.

- **Ubide sistema paisajistikoa.** Ubide Igarobidea ekimen positibotzat hartu behar da DEErako, bertako ibarren balio ekologikoa, paisajistikoa eta bioklimatikoa zaintzeko lagungarria baita. Igarobide hori ezartzea aukera izango litzateke ubidea, ibarrak eta alboko zenbait espazio balioesteko eta kontserbatzeko. Gainera, zenbait gune ureztagarri babesteko ekimentzat ere hartu behar da igarobidea ezartzea, baina ez du sortze-egitura aldarazten eta horrek ez dakar interferentziarik oraingo nekazaritza ustiategien funtzionamenduarekin. Ubide sistema paisajistikoa jarduketa estrategikoa da paisaiaren arloan, eta inola ere ez dakar lurraldea aldaraztea ingurumen eragin handiekin. Hortaz, jarduketa biguntzat hartu behar da; esku-hartze txikiak dakartza hala nola igarobidearen barruko espazio narriaturen

bat leheneratzea edo bertako seinaleztapena. Horregatik, sortutako ingurumen eragina positibotzat hartzen da, eta DEEren ingurumenari dakarkio onura eta hobetu egiten du biztanleen bizi-kalitatea. Horrenbestez, ez da bidezkoa ingurumen eragina zehatzik ebaluatzea.

### 1.6. Jendearen parte-hartzea.

Durangoko Lurraldearen Zatiko Plana erakundeei eta gizarte-eragileei jakinarazi zitzaien, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko Legeko 13.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezko alegazioak, iradokizunak edo aukerak aurkeztu ahal izateko.

## 2. DURANGOKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGITEA.

LZP idazterakoan, kontuan izan dira lurraldearen antolamenduarekin lotutako ondoko araudi hauek, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 30eko 4/1990 Legearen arabera. Lege horretan ezarritakoarekin bat etorriz, hauexek dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko tresnak: Lurraldea Antolatzeko Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

Euskal Autonomia Erkidegoko giro naturalean eta landa esparruan eragina duten bestelako dokumentu arauemaileak, hau da, Durangoko Lurralde Plan Partziala egiterakoan aintzat hartu direnak, gaika sailkatuta, hauek dira:

### 2.1 Natura- eta landa-ingurua:

- LAAetako Ingurune Fisikoa Antolatzeko Jarraibidea
- Euskadiko Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia (2002-2020)
- Euskal Herriko Landa Garapenaren Programa (2007- 2013).
- Euskal Basogintza Plana (1994 – 2030).
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Hezeguneak Antolatzeko eta Babesteko Lurraldearen Arloko Plana..
- EAEko Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Ingurune Naturaleko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana.
- Urdaibai Biosferaren Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketaren I eta II Plan Gidaria.

- Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketaren Plan Gidaria eta Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Harrobiak Izan Daitezkeen Eremuen Lurraldearen Arloko Planaren.Aurrerapena.
- Bizkaiko Mendien eta Natur Espazio Babestuen Administrazioaren ekainaren 2ko Foral 3/94 Foru Araua, martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatua.
- 2002ko otsailaren 26ko 32/2002 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko basoen kontserbaziorako eta garapenerako laguntzen araubidea ezarri duena.
- Basoko kudeaketa iraunkorra eta basoen biodibertsitatearen eta funtzionaltasun anitzerako kontserbaziorako laguntzaren sustapena arautuko duen Foru Dekretua (2003).
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Fauna Intereseko Guneen Katalogoa.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Nekazaritzan Egoki Jarduteko Kodea (390/1998 Dekretua). Uztailaren 6ko 141/2004 Dekretua, abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higienikoak, sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri dituena.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Akuiferoen Kutsaduraren Zaurgarritasun Mapa.

## 2.2 Komunikazioa Azpiegiturak

- LAAetako Garraio, Komunikazio eta Energia Azpiegiturak Antolatzeko Jarraibidea
- Bizkaiko Errepideen Lurraldearen Arloko Plana,
- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.

## 2.3 Jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzea.

Lurraldea Antolatzeko Artezpideetan ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planek emango dituzte garapen ekonomikoko alde berrien tamaina eta antolamendua. Era berean, bertan adierazten denez, jarduera ekonomikoek okupaturiko oraingo lurzoruaren azterketa eta diagnostikoa egingo ditu Eskualde Egitura bakoitzeko LZPk. Durangoko LZPren behin-behineko onespen dokumentuan, Durangaldeko industri jarduerаren kokapena azaltzen da, eta okupazio lineala dugu, non poligono nagusiak Amorebieta-Etxano, Iurreta, Durango, Berriz, Abadiño eta Elorrio udalerrietan biltzen diren, komunikabide nagusien bi ertzetan (N-634 eta A-8).

### Etxebizitzarako lurzorua sortzea

LAAetan ezarritakoaren arabera, Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Plan bakoitzak zenbatuko du egoitza lurzoruaren eskaintza, etxebizitza beharren kalkulua abiapuntu hartuta. Zenbatespen hori egiteko, hauexek izango dira kontuan: lurralde-ereduaren ondorioak, aurreikusten den hazkunde demografikoa, batez besteko familiaren tamaina, eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa eta bigarren egoitzaren osagaia. Durangoko LZPk egoitza zenbatekoketa dakar 82. artikuluan (“Ereduko etxebizitzen zenbatekoketa 16 urterako esparru-proposamenean”) eta 88. artikuluan (“Ereduko etxebizitzen zenbatekoketa 8 urterako").

Horien definizioan aintzat hartu dira "Etxebizitzen sustapen publikorako lurzoruaren Lurraldearen Arloko Plan" baten idazkuntza planteatzen duten LAAetako zehaztapenak eta etxebizitzen sustapen publikorako lurzoruaren LAP.

Bada, tipifikazio hori kontuan hartuta, Durangoko Eskualde Egiutrean “hirigintzako garapenerako lehentasuna duten udalerritzat” jo dira ondoko hauek: Abadiño, Atxondo, Amorebieta-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibar. Beste alde batetik, Izurtzako udalerria “babes ofizialeko etxebizitza osagarrien lurzoruaren arloko eragiketak garatzeko interesa” izena duen kategoriaren barruan sartu da.

## 2.4. Energia.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek erronka multzo bat planteatu dute etorkizunerako eta, horien artean, ondoko hauek azpimarratu daitezke: eskuragarri dauden bitarteko energetikoen ustiapen eragingarria; energiaren zentzuzko erabileraren bidea hautatzea, hau da, aurrezpen energetikoa sustatuko duena; azpiegitura energetikoak proposatu den lurralde ereduaren emaitzako eskakizunei egokitzea; iturri energetikoen askotarikotasuna bultzatzea, gas naturalaren eta energia alternatibo berriztagarrien sarrera indartuz, berbarako eolikoa. Helburu horiek, aldi berean, Ingurumeneko Egitarau Markoa 2007-2010 delakoaren barruan daude, eta baita Garapen Iraunkorrerako Ingurumeneko Euskal Estrategiaren barruan ere; horiek guztiak Durangoko Alde Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren barruan daude, maila horietara iristeko aukera ematen duen estrategien hurrenkera planteatuz.

## 3. INGURUNEAREN KALITATEA ETA INGURUMEN-DIAGNOSTIKOA

Durangoko Eskualde Egitura jarduketa asko dituen lurraldea da, eta ingurunearen dualtasuna da ezaugarri nagusia. Eskualdearen konfigurazio geomorfologiko bereziak, hots, igarobide itxurakoak, eman du lurraldearen gaineko lurzoruen erabileraren banaketa. Hala, Ibaizabal errekako ibar-hondoan hiri eta industriako erabilerak bildu dira eta komunikazio azpiegitura nagusiak ditu. Beraz, gune libre gutxiko espazioa da, ingurumenaren aldetik ageriko arazoak dituena: ertzetako baso-soiltzea, uren kutsadura, eremu ureztagarrien urbanizazioa, etab.

Gainerako lurraldearen zatiak, igarobidea inguratzen duten isurialdeetan kokatuak, Eskualde Egituraren guztizkoaren 9/10ak hartzen ditu gutxi gorabehera. Baserriarekin lotutako baso, nekazaritza eta larreko egiturek kudeaturiko espazioak dira; antropizaturiko eremuak dira, baina ezinbestean zaindu beharreko balio handiak dituzte ingurumenaren eta paisaiaren aldetik; hartara, nekazaritza jarduera indartu eta garapen berriak galaraziko dira. Eremu horiek, maiz, paisaiaren egitura nagusi diren basoko landaketekin tartekatzen dira. Hain zuzen ere ingurumenaren arazo nagusienetako bat pinudiak erabiltzeko moduaren ondoriozkoa da, eta lurzoru galera handia dakarten higadura prozesuak sortzen dira.

Landaredi naturala denaz bezainbatean, lurralde murrizketa handia izan da, eta gaur egun oro har baztertuen eta jarduketa gutxien izan dituzten orban txikietan baizik ez dira aurkitzen. Horren ondorioz, habitat asko galdu da faunarako, eta ondoen kontserbatu direnak bakartuta daude eta elkarrengandik jareginda.

Ur baliabideei dagokienez, hainbat kutsadura-fokuk ukituriko gainazaleko uren kalitatearen hobekuntza zaindu behar da, batia ertzen hobekuntza ere. Akuiferoei dagokienez, berriz, nahiz eta gaur egungo kalitatea ona izan, ez dugu ahaztu behar biztanleriarentzako hornidura, neurri handi batean, hartune

horien mende dagoela, halako moldez non uraren kantitatea eta kalitatea zaintzeko jarduketak behar baitira.

Ingurumenaren ikuspegitik, berebiziko garrantzia du Durangoko Eskualde Egiturako babestutako natur espazioen kudeaketa eraginkorrak biodibertsitatearen kontserbazioan: Urkiolako Parke Naturala, Udalaitzeko Natur Intereseko Eremua eta Oiz mendia.

Jarduera eta eragin asko jasaten duen ingurune batean, Ibaizabaleko igarobidean adibidez, kontuan izan beharko da datozen urteetarako aurreikusitako azpiegitura jarduketa handiak ingurumenean txertatzea, baita ekonomia eta egoitza jarduerako poligono berrien kokapena kontu handiz hautatzea ere, kalte handiagoak ez eragiteko eta lurzoruaren baliabide urria alferrik ez gastatzeko.

## 4. ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA.

Fase hau bi mailatan garatzen da. Alde batetik, oinarrizko helburuak aztertzen dira, Durangoko Eskualde Egiturarako lurralde-ereduaren proposamena aintzat hartuta; bestetik, ekintzako proposamenek gizartean nahiz ingurumenean izandako eraginaren balorazioa egiten da, laburpen-agiri honetako 1.6 epigrafean adierazitakoaren arabera.

### 4.1. LZPren helburuek izan ditzaketen ingurumen-eraginen azterketa.

Proposaturiko lurralde-ereduaren abiapuntua zenbait printzipio dira, beren beregi Eskualde Egiturako lurraldearen antolamendu iraunkorraren aldeko apustua egiten dutenak, baita ingurune naturalaren ingurumen-balioak sustatzearen eta indartzearen aldekoa ere.

Ingurumen, gizarte eta ekonomia iraunkortasunaren aldeko printzipio horrekin txertatuak eta koherenteak diren hainbat helburutan banatzen dira helburu orokor horiek, hala nola: ingurumena biztanleriaren bizi-kalitaterako eta garapen ekonomikorako gakotzat hartzea, ingurumena babesteko neurriak sektore eta lurralde politika guztietan txertatu beharra, natura eta landa ingurunean jarduketa positiboak eta aktiboak praktikan jartzea… Ekintza multzo hori abiarazteak hobekuntza ekarriko dio gizarte-ingurumenaren egoerari, zalantzarik gabe.

Ereduaren printzipio horien itzalpean, hauexek dira LZPk Durangoko Eskualde Egiturarako dakartzan oinarrizko helburuak eta horien ondoriozko balizko ingurumen eraginak:

- **Eskualde Egitura oraingo egoeraren azterketan oinarrituz antolatzea.** Eragina ona izango dela jotzen da; izan ere, jarduerak kasuan kasuko espazioaren harrera-gaitasunaren arabera arautzen dira, baita narriaturiko ingurumen-bektoreak hobetzeko aukera ere.
- **Eskualde Egitura Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-artikulaziorako funtsezko piezatzat indartzea, Ibaizabalen igarobidearen lehiakortasuneko eta birkualifikazioko elementuak sendotuz.** Helburu honek garapen-jarduketak eragiten ditu; esaterako, hiri- eta industria-hazkundeak, azpiegituren garapena, etab. Gizartearen eta ekonomiaren arloan eraginak onak izan daitezkeen arren, ingurumen balioan sor daitekeen eragin txarra ekiditeko beharrezkoa da helburuak berak ezarritako ikuspegia aintzat hartzea: *garapen ekonomikoaren eredua kalitateko lurralde-garapeneko ekimentzat hartzea, lurzoruaren erabileren eta paisaia-egituraren arteko orekak bermatzeko eta zaintzeko, hau da, ondare ekologiko osoa zorrotz babesteko*.
- **Haran-hondoko hirigintza trinkoaren eta nekazaritza-jarduera kontserbatzearen arteko bizikidetza bermatzea**. Helburu honek Eskualde Egiturako landa-inguruneko ingurumena eta paisaia mantentzea eragiten du, jarduera bat eta lurzorua erabiltzeko mendeetako formak sustatuz.
- **Lurraldea zuhur erabiltzean euskarrituriko hiri-garapena sustatzea**. Hazkunde sozioekonomikoa ezin da ito eta ez da ito behar; horrenbestez, helburuak garapen horren muga espaziala ezartzeko nahia adierazten du, lurzoru-baliabidea zentzuz erabiltzearen aldeko apustua egiten baitu. Funtsezko printzipioa da, batez ere landa-inguruetan eta landazabaletan, bertan dentsitate baxuko egoitza-eremuan edota isolaturiko familia bakarreko etxebizitzan oinarrituriko hazkunde barreiatuak murriztu egiten baititu jarauntsitako ingurumen- eta paisaia-balioak.

- **Trenbide-azpiegitura sustatzea, Eskualde Egitura artikulatzeko elementutzat.** Helburu hau betetzen den neurrian, horrek eragin ona izango du ingurumenean, bai zuzenean (isurpen kutsagarriak murriztu, trafikoaren itotze mailak hobetu…) eta bai zeharka (saihestu egin daitezke bide-sarean egindako jarduketa asko, ingurumen-eremu baliotsuetan eragina dutenak). Hala eta guztiz ere, ingurumenaren ikuspegitik begiratuta, zaindu eta saihestu egin behar da proposaturiko zabaltzeek sorturiko eragina.
- **Baliabide naturalen babes aktiboa eta baserriaren bideragarritasuna segurtatzea.** Helburu honek eragin oso positiboa dauka; izan ere, baserriaren funtzio ekonomikoa sustatzeaz gain, baliabideen aprobetxamendu integrala eta iraunkorra ere lortu nahi du, landa-ingurua mantentzeko nahiz hobetzeko eta paisaia kontserbatzeko funtsezko jarduketatzat.

LZPren ingurumen-helburuei dagokienez, euren ezaugarriak aintzat hartuta, guztiek ere eragin ona izango dutela dago aurreikusita:

- Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea, bai sektore ekonomiko gisa, bai paisaiaren baliabideak erabiltzeko eta kudeatzeko betetzen dituen funtzioengatik.
- Produkzioko baso-jarduera arrazionalizatzea eta hobetzea.
- Interes fisiko eta biologiko handiko espazioak, elementuak eta prozesuak kontserbatzea, hobetzea eta suspertzea.
- Gainazaleko eta lurpeko uren kalitate mailak hobetzea eta leheneratzea.
- Ingurumen-arriskuak ahalik eta gehien murriztea, lurzoruaren erabilerak araututa baldintza gainjarriek ukituriko eremuetan.
- Natura- eta landa-espazioen erabilera publikoa sustatzea, horien balioek eta funtzioek exijitzen dituzten beharrezko murrizpenak ezarriz.

- Natura- eta landa-paisaia zaintzea, hobetzea eta suspertzea eta paisaian errespetuz sartzea bultzatzea.

Azken batean, Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren helburu guztiek eragin ona izan dezakete ingurumenean, Lurralde Ereduak aukeraturiko filosofia iraunkorraren eta integratzailearen arabera. Horietariko batzuk, berez ere, ingurumen-helburu argiak dira; beste zenbait, bestalde, estuago lotuta daude ekonomia- edo hirigintza-garapenarekin, edo azpiegitura edo zuzkidura berrien garapenarekin, eta horien ingurumen-eragina baldintzaturik egongo da, lurraldeko ingurumen-balioak kontserbatzeko edo hobetzeko balio duten baldintza batzuk betetzera.

## 4.2. LZPren jarduketek ingurumenean izan ditzaketen eraginen identifikazioa eta balorazioa.

Durangoko Eskualde Egituraren LZPk eginiko antolamendu proposamenaren azterketarekin bat etorriz, oinarrizko hiru kapitulutan banatzen dira proposaturiko lurralde eredua betetzeko jarduketak, balizko ingurumen eragina dutenak: landagunea antolatzeko kategoriak, lehentasunezko eremuen proposamena egoitzako edo jarduera ekonomiko eta azpiegituretarako garapen berrietarako.

### 4.2.1. Antolamendu-kategoriak.

#### .2.1.1. Sarrera

Antolamendu-kategoriak lurzoruaren erabilerak (erabileren araudia) eta garapen-formak (jarduketen proiektua) zehazteko oinarritzat jarduten duten lurralde-eremuak dira; euren helburua baliabideen kontserbazio eta ustiapen iraunkorra bermatzea da.

LZPk lau antolamendu-kategoria (azpikategoriatan banatuta) eta gainjarritako baldintzak ezartzen ditu:

– “Aparteko Babeseko Lurzoruak”.
– “Gainazaleko Urak Babesteko Lurzoruak”.
– “Lurzoru Babestuak: baso, nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta landazabalak”.
– “Landaguneen Kategoria”.
– “Ingurumen Naturalaren kategorizazioaren baldintza gainjarriak”.

Antolamendu azpiegituren eta baldintza gainjarrien ingurumen azterketan, eraginaren ezaugarririk zuzenenak eta garrantzitsuenak azpimarratzen dira; matrize egokian zehaztuko da eraginen multzoa, baita eragin mota ere.

### 4.2.2. Jarduera ekonomikoaren eta egoitzen hazkunde berriak.

Lurraldea Antolatzeko Artezpideen arabera, jarduera ekonomikoaren lurzoruaren gaineko politika eta egoitza-lurzoruaren politika funtsezko tresna dira politikan bertan planteatzen den lurralde eredua lortzeko. Horrexegatik defendatzen dute etxebizitzetarako lurzoruaren sustapen publikoko jarduketen eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sustapen publikoko jarduketen arteko koordinazioa, egoitzaren eta enpleguaren arteko oreka lortu eta, horri esker, biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko.

Durangoko Lurraldearen Zatiko Planak ekonomiaren arloan egiten dituen proposamenetan Ibaizabaleko igarobidearen lehiakortasuna indartzeko apustua egiten da. Oraingo industri klusterrak indartuz eta enpresentzako

zerbitzuak garatuz, espazio bat agertzea nahi da, non Durango zerbitzuen eta industri berrikuntzako jardueren erdigunea izango baita, Amorebieta-Etxanok industri sektoreen eta jarduera logistikoen aldeko apustua egingo baitu, eta gainerako jarduera ekonomikoa beste udalerrietan bilduko da. Horien artean, hauexek nabarmentzen dira: Abadiño, Berriz, Iurreta eta Elorrio.

DEEko jarduera ekonomikoetarako eskuragarri dagoen lurzoruak, gaur egun, epe laburrerako eta ertainerako aurreikusitako beharrak betetzen ditu. Hala eta guztiz ere, lurzoru bideragarriaren eskaintza bat bermatzeko, jarduera ekonomikoetarako okupazioaren mugako eremu berriak proposatzen ditu LZPk, beharrezkoa den heinean okupatuko direnak, betiere lehentasunez jarduera ekonomikoen eremuak birsortu ondoren eta hutsik eta eskuragarri dauden lurzoruak okupatu ondoren.

Egoitza hazkunde berriei dagokienez, handitzeak biltzen ditu Durangoko LZPren garapen plangintzak Iurreta, Abadiño, Berriz eta Elorrio udalerrietan, eta gainerako udal-mugarteetan egoitza-bokazioko mugako eremuak proposatzen dira eraturiko espazioa osatuz.

Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planak, LAAetan emandako jarraibideen arabera, egoitza hazkunderako eremuen neurriak ematen ditu "hazkunde selektibo" deritzonaren arabera, eta behar endogenoengatik aintzat harturiko etxebizitza gehigarriak eta Bilboko EEtik datozenak bildu dira udalerri hauetan: Abadiño (200), Amorebieta (300) eta Iurreta (100). Eta bestetik, Deba Beheko Eskualde Egituratik datozenak (60) Zaldibarren.

Topografia inbrikatua da Euskal Herriko Kantauriko isurialdea definitzen duen ezaugarria. Behar bezalako irisgarritasuna duen espazio laurik eza eragozpen bihurtzen da lurraldea behar bezala antolatzeko, eta ohikoak dira erabileren arteko gatazkak. Haraneko aldeek, askotan, haien harrera-gaitasuna baino handiagoa den hirigintza presioa jasaten dute. Horri dagokionez, egiaztatuta dago nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak atzera doazela Ibaizabaleko igarobideko hondoan eta magal ertainetan, eta halaxe islatzen da presioarekin zuzenean lotutako ingurumen eta paisaia balioak galtzeko prozesuan.

Hain zuzen ere, hori ondo ebaluatzeko, *Inguruneko eraginaren baterako ebaluazioarekin* batera, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren gaineko eragina ebaluatzeko azterketa ere egin da: ***Durangoko Eskualde Egiturako (DEE) Lurraldearen Zatiko Planeko (LZP) garapen berrien eraginpean egon daitezkeen nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen ikerketa, agiri honetara erantsita dagoena (OT-C-05X-2005).*** Azterlan hori LZPren idazketaren hasiera-hasierako faseetan egin zenez gero (hasierako onespenaren aurretik), gaur egun agiri hau zaharkiturik dago eta ez da txertatu LZPren azken formulazioaren ingurumen ebaluazioa. Edozein kasutan ere, hasierako etapetan, 4. kapituluan zehazten den bezala, eremu funtzionaleko okupazioaren muga esparruen birkokapena eragin zuen.“Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen ikerketa…” horren helburua, izan ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenak identifikatzea eta aztertzea izan zen, hain zuzen ere, LZPko egoitzako edo jarduera ekonomikoko garapen berrien lehentasunezko eremuen eraginpean egon daitezkeen ustiapenak identifikatzea eta aztertzea. Helburu hori izanda, aitorturiko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei dagozkien lurren katastroko lursailak identifikatu dira, 2005eko Nekazaritza Ustiapenen Erregistroko datuen arabera.

Lursailak identifikatu ondoren, azaleren, aprobetxamenduen, ustiapen-tamainen (erreferentziako eremuan) eta edukitze-araubideen azterketa kuantitatiboa egin zen. Ez da ahaztu behar, hala eta guztiz ere, lan honen oinarrian dauden informazioak mugatuak direla, eta ez dutela aukerarik ematen adierazitako ustiapenen eta adierazi gabeen (baina nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea mantentzeko eta garatzeko birtualtasunak dituzten ustiapenak) indarraldi maila, profesionalizazioa, jarraitzeko asmoak eta abar zehatz baloratzeko. Lan hori LZPk garapen berrien arloan egindako proposamenek nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueran duten eraginerako hurbilketatzat hartu behar da, LZPk berak erabilitako zehaztapen-eskala aintzat hartuta. Etorkizunean okupazioaren mugako eremuetan proposatzen den edozein esku-hartze gauzatzeko, oraingo nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan izango den eraginari buruzko azterlan espezifikoa bildu beharko da ingurumen eraginaren manuzko azterlanean. Azterlan horri esker, aukerak eta zuzenketa neurriak zehaztu ahal izango dira.

Ikerketa horretan jasotako informazio kuantitatiboak, bestalde, landa-ikuskapenean lorturiko informazio kualitatiboekin osatu ziren. Horrela, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren indarraldi maila neurtzeko aukera ematen duten kanpoko ezaugarriak baloratu dira, identifikatu beharreko lursailetan nahiz eremua osotasunean. Era berean, landa-balorazioak egin dira, ingurumen-kontserbazioari eta paisaia-kalitateari buruz.

Ondoko hauek zehazten direneko jatorrizko lanean bildu behar dira proposaturiko eremu bakoitzeko ezaugarri nagusietan lorturiko emaitzak: ukituriko ustiapenen kopurua, horien orientazio teknikoa eta ekonomikoa, ustiapen bakoitzerako eta zonarako kaltea etorkizuneko nekazaritza-unitate gisa. LZPren mugako eremuaren proposamenen egungo zehaztapenean,

kontuan izan da proposamenek nekazaritzan eta gizarte-ingurumenean duten kaltea, hain zuzen *"Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei buruzko azterlana…"* deritzonetik ondorioztatzen zena. Hartara, proposamenen kalte horiek gutxitu dira.

#### 4.2.2.1. - Ondorioak eta eragin-matrizea.

Durangoko eremu funtzionalean jarduera ekonomikoaren okupazioaren muga eremuetarako proposamenak aldaketa garrantzitsuak izan ditu berrikuspenetan, betiere eraginari dagokionez. 2006ko proposamenaren aldean, eremuen kopuru handia ezabatu da eta horrek ingurumen eraginen murrizketa garrantzitsu eta orokorra dakar Durangoko eremu funtzionalean, bereziki balio estrategikoko nekazaritza lurzoruen okupazioa nabarmen murrizten delako. Halaber, murrizketa horien ondorioz, paisaiak ukipen gutxiago izango ditu eta murrizketok zenbait kasutan lagunduko dute (esate baterako Abadiño-Atxondoko ardatzean) konurbazio arriskua apaltzen eta lurraldearen ikus iragazkortasuna handitzen.

Beste alde batetik, eremu batzuen mugetan aldaketak egin dira, horiek lurraldean koherentzia handiagoarekin txertatzeko; horrek morfologia edo trazatu aldetiko berregokitzapenak besterik ez ditu ekarri eta kasu batzuetan azalearen hazkunde apal-apalak. Aldaketa horiek ez dute ukipen larririk edo kritikorik ekarri inola ere, hirigintza plangintzaren aurreko faseetan aurreikusitako ukipenak murrizten dituztelako.

DEEn formulazioetan zehar egin den jarduera ekonomikoen eta egoitzazko erabileren mugako okupazioaren proposamenak aldaketa nabarmenak ekarri ditu emaitzako eraginari dagokionez.

Egindako azterketaren ondoren, ondorioztatzen da balio estrategiko handiko landazabalen azaleren okupazio potentziala izaten dela aurreikusitako

jarduera ekonomikoaren muga eremuek sorrarazten duten ingurumen eraginik ohikoena.

LZPren ondoz ondoko formulazioen ostean eta alegazioak aztertu ondoren, egungo (2009) proposamenera iritsi gara, eta proposamen horixe da, DEEren garapen ekonomikorako aurreikusitako beharrizanak beteta, iraun egin duena. Esku-hartze gutxiko eremuak dira, proposamenak isolatze-prozesuen eraginpeko zirrikituetan kokatuta, oraingo hiri-egiturari eta bide-sareari dagokienez, eta horrek eraginak izango ditu habitatean eta paisaian. Nolanahi ere den, proposaturiko okupazioaren muga eremuen garapenen bat aurrera eramanez gero, gune bakoitzean izango den ukipena modu egokian baloratu behar izango da ingurumen eraginari buruzko azterlana eginez, betiere LAAek eta LZPk berak ezarritako irizpideekin bat etorriz; gauzak horrela, zehatz-mehatz aztertu behar izango da landa guneari, oro har, eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako jarduerari, bereziki, dakarkieten ukipena.

Jarduketen garapen zehatzak proposatu diren okupazioen mugako esparruetan zehaztu behar dira; horiek hurrenez hurren finkatzen joango dira DEEko jarduera ekonomikoen eta egoitzaren garapeneko beharrizanen arabera. Proposamen horren xedea garapen horien kokapenerako ezaugarririk onenak aurkezten dituzten DEEko esparruak mugatzea da, hots, DEEko gainerako arloak garapen sakabanatuen ezarpenetik babestuz.

Halaber, gizakiei eta ekonomiari sortzen zizkieten arriskuak kontuan hartuta, arreta berezia jarri zaie uholde-arriskuko eremuetan kokatuta zeuden proposamenei. Hain zuzen ere, LZPk debekatu egiten du 500 urteko itzultze-aldiari dagokion kotatik beherako industria-nabeak instalatzea. Horrenbestez, kasu batzuetan, jarduera horien azalera berriro dimentsionatu behar izan da, eta beste zenbait kasutan, berriz, neurri eraginkor bakarra aukera bideragarria aurkeztea izan da.

Halaber, proposamen guztiak Fauna eta Florako Intereseko Aldeetatik kanpora gelditzen dira, eta DEEn arriskuan dauden espezie guztientzako eragina galarazi da. Horien artean, Bisoi Europarra nabarmentzen da. Proposaturiko eremuak, oso-osorik, Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Ingurune Naturalaren LAPen zehazturiko alde higagarrietatik kanpora daude kokatuta.

Laburtzeko, faktoreen zuhaitza eta ekintzen zuhaitza gurutzatzearen matrizea aurkezten da, eta horrek aukera emango du LZPko jarduera ekonomikoetarako eta egoitzarako lehentasunezko eremuen proposamen berrien eraginpeko azpisistemetako elementuak agerian jartzeko. Era berean, eraginaren laburpen-mapa egin da, jarduera ekonomikorako eta egoitzako garapen berrien proposamenen multzoan oinarrituz, eta hori 4.2.2 epigrafearen amaieran agertzen da.

### 4.2.3.- Mugikortasuna

Lurraldea Antolatzeko Artezpideek garraioaren erlazio-sistema baten aldeko apustua egiten dute, EAEko hirien sistema osatzen duten biztanle-guneen barneko eta kanpoko loturen posibilitateak optimizatzea ahalbidetuko duen sistema baten alde, ekoizpen-sistema hobeto txertatzeko eta gizarte eta kultur erlazio estuagoak lortzeko. Aldi berean, Eskualde Egitura bakoitzaren barne egituraketa hobetzen lagundu behar du, LAAek lurralde eredu honetan planteatzen dituzten oreka eta osagarritasun irizpideekin bat etorriz.

Durangoko LZPk aukerako mugikortasuna sustatzeko jarduketak proposatzen ditu oinezkoen eta bizikleten mugikortasun moduak indartuz, aukerako trazatuen proposamenak eginez, baita trenean eta garraio kolektibo osagarrian oinarrituriko sare bat abiaraziz (bus edo tranbia erreia) eta oraingo garraio sareen gaineko jarduketak eginez ere (bidekoa eta trenbidekoa).

Horretarako, hiriguneek gaitasun altuko bide-sarearekin (A-8 eta N-634) dituzten loturak hobetzeko jarduketak proposatzen ditu, baita gaitasun ertaineko bide-sareari dagozkion banaketa-igarobideak sustatzeko jarduketak ere, Eskualde Egituran irisgarritasuna hobetu ahal izateko eta igarotze-trafikoen eta erlazioko barne trafikoen interferentzia gutxitzeko, garraio publikorako plataforma esklusiboa, tokirik erakargarrienetan trukagailuak (Zornotza eta Durango) eta tren geltokiekin lotutako disuasio-aparkalekuak jarri behar dira, aldi berean, trafiko-arazoak nahiz hiri-inguruko gatazkak konpondu ahal izateko Gainera, lehen adierazitako ingurumen-babesa aintzat hartuta, bigarren mailako gainerako igarobideetako irisgarritasuna kontrolatzea proiektatzen da; esate baterako, Durango-Urkiola-Otxandio-Araba (BI-623) igarobidea, edo Pagatzako portua eta Elorrio-Berrioko tartea, betiere gainerako errepide txikiagoak ahalik eta gehien zainduta, ingurumen kalitate handia dela eta.

IEBA honetan, Durangoko LZPk aurkezturiko proposamenen ingurumen balorazio xehakatua egingo da mugikortasunaren arloan (9. kapitulua, *Garraio azpiegituren antolamendua)*, testuan eta horrekin lotutako kartografian dokumentu horri buruz egiten den azalpenaren arabera ("3. Antolamendu-planoa: errepide eta trenbide sarea eta 4. Antolamendu-planoa: aukerako mugikortasuna"). Proiektuen kokapena, ekintzaren ezaugarriak, ukituriko elementu fisiko nagusiak, etab. azalduko dira, xehetasun-maparekin batera. Hala ere, edozein jarduketa zehatz garatu behar da, Ingurumen Eraginari buruzko Azterlan propioa. Honelaxe antolatu da LZPk proposaturiko bide-sareko ekintza nagusien arbola:

1. Motorrik gabeko bideen aukerako mugikortasun sarea
2. Garraio kolektiboko plataforma
3. Jarduketa zehatzak bide-sarean
4. Trenbide-sarearen estrategiak

#### 4.2.3.1- Mugikortasunaren arloko proposamenaren ondoriozko eraginak

LZPk mugikortasunaren eta garraioaren arloetan dituen helbururik behinenen artean intermodalitatearen hobekuntza eta talde-lekualdaketetarako bitartekoen sustapena daude, hau da, gaur egun jarduketaren esparruan ezaugarri nagusia den garraio pribatuaren erabilera orokorraren alternatiba bideragarria izango direnak.

Inolako dudarik gabe, baldin eta mugikortasun alternatiboko sarearen plataformaren eta talde garraioko plataformaren eraikuntza gauzatzen bada, horiek sustatuko dituzten erabilera publikoek nabarmen lagunduko dute Alde Funtzionaleko ingurumenaren kalitatearen hobekuntzan, energiaren kontsumoaren balantzearen onerako izango direlako eta hala kutsadura akustikoa nola atmosferako emisioen maila murriztuko direlako; horiek ez ezik, logikoa den moduan, egoitzazko edo jarduerak egiteko lurzoruen multzo osoaren irisgarritasun egokian laguntzen du.

Honako LZP honetan jaso diren bideen arloko jarduketa batzuek ekarriko lituzketen ingurumeneko eragin negatiboak ahaztu gabe, oro har esan daiteke arlo horretan planteatu diren gainerako proposamenek ingurumeneko balorazio positiboa dutela. LZPren lehentasuna N-634ko trafikoa deskargatzea da, A-8 autobidearekiko loturen hobekuntza eta autobidearen handitzea abiapuntu hartuta, eta horrek, apurka-apurka, hiri-izaera handiagoa hartzeak eragin positiboa izango du Eskualde Egiturako gizarte- eta

ingurumen-baldintzetan. Gogoratu behar da hiriguneetako ibilgailuen trafikoa urritzeko helburua ez dela N-634ko jarduketen bidez soilik lortuko; izan ere, trazatu berri asko egingo dira, adibidez, BI-635koa, eta horrek, Elorrioren eta Berrizen arteko loturak hobetzeaz gain, onura handia ekarriko die Atxondori, Abadiñori eta Durangori edo beste jarduketa batzuk N-240 errepidea lurpean sartuta Iurretan, BI-635 errepideko tunela, trazatuen hobekuntza, A-8 autobidearekin lotutako aparkalekuen zuzkidura.

Halaber, Eskualde Egituran garraio publikoa sustatzeko eta hobetzeko ahaleginaren balorazio positiboa egiten da, eta bizikleta sustatzeko ahaleginaren balorazio positiboa ere bai; hain zuzen ere, baliabiderik eraginkorrena da ibilbide ertaineko bizilekutik lanerako eta bizilekutik ikastetxerako joan-etorrietarako. Ibaizabalen igarobideko bide-arteriak itota egotea arazo larria da Eskualde Egituran, eta eragin handia dauka ingurumen-kalitatean eta, batik bat, bizi-kalitatean. Ingurumen eraginiko positiboena duen neurritzat jo daiteke proposamena, ingurumenaren onurarako izango diren zeharkako eraginengatik.

LPPren lanerako eskalaren eta arlokako plangintzatik ekarri diren jarduketek bertan duten proposamen-izaeraren ondorioz ezinezkoa da ustezko eragin horien balorazio xehekatua. Duda barik, proiektuen betearazpenari buruzko xehetasunek euren bidezko ingurumeneko eraginen azterlana behar dute eta, horretan, giroko ukipen guztiak hartuko dira aintzat eta hala betearazpen faseetan nola proIektuen ustiapenen faseetan aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak proposatuko dira.

Laburtzeko, ondoren faktore-zuhaitzaren eta ekintza-zuhaitzaren gurutzeko matrizea aurkezten da, LZPren trenbide-proposamenen eraginpean geldituko diren azpisistemetako elementuak agerian jartzeko. Bide sarearen eraginen analisia LZPk planteatu dituen proposamen zehatzei buruzkoa da, hots, “4.2.3.1. atala. Sarrera” delakoan agertzen den moduan; dena dela, ohartarazi

egiten da jarduketa zehatzeko garapen guztiek kasuan kasuko ingurumeneko eraginaren azterlanean sartuko den euren berariazko plangintza behar dutela.

### 4.2.4.- Trenbide sarea

Lurraldea Antolatzeko Artezpideek azpiegitura estrategikotzat jotzen dute trena. Planteamendu horrekin bat, Durangoko LZPk trenbidea aukeratu du merkantziak eta bidaiariak metaka eramateko garraiobidetzat, eta errepideko garraio publikoarekin koordinatzen du autobusean oinarrituta. Hartara, trukagailuak jarriko dira Amorebietako eta Durangoko biztanle-guneetan.

Bide sarearen proposamenen azterketaren antzera, Durangoko LZPk aurkezturiko trenbide jarduketen ingurumen ebaluazioa (9. kapitulua, Mugikortasuna, 9.5.2. atala: Trenbide sarea) bide sareari buruzko testuan eta horrekin lotutako kartografian egiten den azalpenaren arabera egingo da (3. Antolamendu-planoa. Errepide eta trenbide sarea).

Aurreikusitako proiektuen eragin maila baloratuko da, haien hedapena, ezaugarriak, ustez ukituriko diren ingurumeneko faktoreak eta lurraldearen aurretiazko egoera aintzat hartuta.

Eskualde Egituraren trenbide ardatzak abiapuntu hartuta egin da azterketa, sektore bakoitzeko ardatz guztiak banakatuz, ebaluazioa errazteko eta hobeto ulertzeko. Abiadura Handiko Trenari dagokionez (AHT)*, ez dirudi bidezkoa denik Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazio honetan proiektuaren ingurumen balorazioa egiteak, zeren dagoeneko onetsita dagoen azpiegitura baita, Ingurumen Eraginari buruzko bere adierazpena duena; izan ere, azpiegiturak lurraldean duen eragina eskualde mailan ezin ebalua daiteke.

Lehen adierazitakoaren arabera, Durangoko LZPk proposaturiko trenbide-sarearen ekintza-zuhaitza ondoren adierazten denez antolaturik gelditzen da:

Zabalera metrikoko trenbide-sarean zehar **segurtasun baldintzak eta zerbitzua** hobetzeko, jarduketa hauek ezarri dira.

- Bilbo-Donostia tren linea bikoiztea Amorebieta-Eibarko tartean (Bilbo-Amorebieta bikoiztuta dago dagoeneko), Trenbide Planaren ekintza nagusienetakoa dena.

**Hiri-esparruetako azpiegituraren integrazioa hobetzeko, bertako irisgarritasuna errazteko eta, beraz, bidaiari gehiago erakartzeko**, ondoko jarduketa hauek bildu dira.

- Durangoko etorkizuneko geltokia, lurpekoa (hiri-barruko egungo trenbide trazatuaren zati handi baten moduan). Garraiobideen arteko trukaketa maila askoz handiagoak errazteaz gain, hiri-birgaikuntza handia egitea ahalbidetuko du, hobekuntzak bereziki behar dituzten sareetan. Hori guztia hobetuko da are gehiago aipaturiko bidaiak gutxituta. Horregatik, bidezkoa da Durangoren nagusitasuna aintzat hartzea hiri-berrantolamenduari dagokionez.
- Bideak berregituratzea eta egungo geltokiak bateratzea Zornotzan lurpeko geroko geltoki baten bidez. Eragiketa horri esker, hiri inguruko lur handi bat askatuko da, posizio-balio handikoa, behar bezala antolatu beharrekoa.
- Aukerako ibilbidearen azterlan-proposamena, Berrizko biztanle-gunearen azpitik doana.

### 4.2.4.1- Trenbide sarearen arloaren gaineko proposamenen ondoriozko eraginak

Durangoko LZPk trenaren aldeko apustua egiten du Durangoko Eskualde Egiturako garraio publiko nagusi lez. Aurreko ataletan azaldutako uneko ingurumen eragina txarrak alde batera utzita, trenaren aldeko apustuak onuragarria izan behar du Eskualde Egiturarako ingurumen, ekonomia eta gizarte iraunkortasunaren aldetik; azken batean, bizi-kalitatearen hobekuntza ekarri behar du.

Laburbilduz, faktore-zuhaitzen eta ekintza-zuhaitzen gurutzatze-matrizea azalduko da, LZPren trenbideen gaineko proposamenek ukituko lituzketen azpisistemen elementuak agerian uztea ahalbidetuko duena.

Trenbide sarearen eraginen analisia LZPk planteatu dituen proposamen zehatzei buruzkoa da, hots, “4.2.3.1. atala. Sarrera” delakoan agertzen den moduan; dena dela, ohartarazi egiten da jarduketa zehatzeko garapen guztiek kasuan kasuko ingurumeneko eraginaren azterlanean sartuko den euren berariazko plangintza behar dutela.

### 4.2.5.- Energia eta telekomunikazio azpiegiturak.

Lurraldearen Zatiko Planaren xedea, Durangoko Eskualde Egituran, energia aurreztea eta aprobetxamendua lortzea da, erabilitako energia-iturriak dibertsifikatzeko proposamenaren bidez; horri esker, energia multzo multzoa edukiko da, eta hornidura-iturrietako batean aldaketaren bat gertatzeko askoz arrisku gutxiago du. Ildo horretan, gas naturala energia-iturri gisa erabiltzea bultzatzen du LZPk, baina ez du proposamen zehatzik egiten eta, beraz, ez da Ingurumen Eraginaren Ebaluaziorik egiten; izan ere, ebaluazio hori sarea garatzeko proiektu zehatzetarako baizik ez da.

Argindarraren eta gasaren garraioaren eta banaketaren arloan, ondokoak ezarri dira telekomunikazio zerbitzuen arloko ekintzatzat lurralde eredua eta

horren ondoriozko jarduketen eta sareen plangintza sektoriala behar bezala koordinatzeko, eta halaxe islatuko dira zehaztapen grafikoetan. Hauexek dira ekintzok:

a) Aireko hariteria elektrikoaren kalteak gutxitzeko plan bat egitea, ahal dela zenbait linea bateratuko duena (beharbada erredundanteak izan daitezke, trazak edota ustiapen bermeak direla) eta gatazka larriak gutxituko dituena, atzeraeramanguneen bidez edo, are gehiago, lurperatzeen bidez. Gainera, azpiegitura biltzeko igarobideak sortzea bultzatuko du planak, gai hori Lurraldearen Zatiko Plan honen txostenean garatzen den moduan.

b) Azterlan bat egitea, garraio eta banaketa linea elektrikoetan oraingo baterako eta aurreikusteko moduko sorkuntzen gorabeherak aztertuko dituena elektronikaren ikuspegitik.

LZPren dokumentazio grafikoan, eskematikoki bildu dira tentsio altuko eta ertaineko sare elektrikoko trazatuak, eta udal plangintzak trazatuok izan behar ditu aintzat, lurzorua behar bezala mugatzeko eta kalifikatzeko, halako moldez non bat etorri behar dute azpiegitura hori betearazteko proiektuekin.

Telekomunikazioen arloan, ondokoak ezarri dira telekomunikazio zerbitzuen arloko ekintzatzat lurralde eredua eta horren ondoriozko jarduketen eta sareen plangintza sektoriala behar bezala koordinatzeko, eta halaxe islatuko dira zehaztapen grafikoetan. Hauexek dira ekintzok:

a) Eremuko biztanle-gune nagusietarako sarbidea duten teknologia aurreratuko enbor-azpiegiturak indartzea.

b) Zerbitzuan sarbidea izateko sareko hiri-ezarpenerako aprobetxamendua, gainerako oinarrizko azpiegiturak ezartzeko edota berritzeko programa osagarrietan.

Dokumentazio grafikoan eskematikoki bildu da sarearen trazatua, eta udal plangintzetan hori izan behar da aintzat, lurzorua mugatzeko eta kalifikatzeko,

betiere IEErekin lotuta egon behar duen azpiegitura betearazteko proiektuekin bat etorriz.

## 5.- PREBENTZIO, ZUZENTZE ETA KONPENTSAZIO NEURRIAK.

LZPren proposamen bakoitzaren inguruneko eragin maila zehaztu ondoren, Baterako Ebaluazioaren Ikerketak neurri batzuk ezartzen ditu eraginok murrizteko.

Aurreko formulazioetan (2006 eta 2007), eraginaren maila kritikoa edo altua zenean, uste izan zen proposamena onartu ezina zela ingurumenari dagokionez eta, ondorioz, alternatiba bideragarri bat planteatu zen, hain zuzen ere honako dokumentu honen 4. kapituluan bidezkotu den bezala. Gradu ertaineko ingurumeneko eraginen kasuan neurri multzo bat definitu da; neurri horien xedea ingurumena murriztea da, hots, maila bateragarri edo adierazgarri batera iritsi arte edo, bestela, hala denean, elementu ukituak lehengoratzea

### 5.1. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien identifikazioa.

Ingurumen Eraginaren Azterlanean azaldutako ingurumen eraginak saihesteko eta murrizteko helburua izanik, hiru neurri mota ezarri dira: babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak.

*Prebentzio neurriak*. Nahiz eta horrelako neurriak fase guztietan aplikatu behar diren, lurraldea antolatzeko aldian hartzen du garrantzi berezia, betiere aldi hori plangintza fasea dela kontuan izanik. Neurrion xedea eragina agertzea da, LZPren proposamenekin lotutako ekintzetako bat aldatuta. Prebentzio neurriak dira planteatu behar diren lehenak, zeren eta eragina galaraz dezaketen bakarrak baitira; bestalde, kontuan hartu behar da fase honetan lan egiten deneko xehetasun mailak galarazi egiten duela kasu askotan zuzenketa eta konpentsazio neurri zehatzak eta espezifikoak ezartzea, proiektu faseko berezkoak direnak. Hortaz, irizpide orokor gisa, kontua beti da prebentzio neurriak hartzea; hobe da galaraztea zuzentzea baino, batez ere zenbait baliabideri dagokionez, noiz-eta eragina agertzeak baliabidea behin betiko desagertzea dakarrenean. Halaxe da, esate baterako,

urbanizazioan eta, ondorioz, landazabaleko eremu zabalak behin betiko iragazkor bihurtzea.

_Zuzenketa neurriak_. Berreskura daitezkeen eraginak murrizteko erabiltzen dira, inguruak onartzeko moduko mailaraino. Hala ere, inguruneko elementuak babesteko jarduketa-ildoak planteatzen dira plangintzaren fase honetatik bertatik; ez da ahaztu behar LZPren beraren eskalaren araberako proposamenen definizio mailak galarazi egiten duela maiz zuzenketa neurrien definizio absolutura iristea, eta proposamen bakoitzerako garatu beharreko proiektu zehatzari dagokion behin betiko Ingurumen Eraginaren Azterlanean ezarri beharko dira nahitaez.

_Konpentsazio neurriak_. Halako neurriak aplikatzen dira eragin ekidinezinak direnean, eta beste eragin positibo batekin konpentsatzea dute helburu. Praktikan, zaila da konpentsazioa lortzen eta, beraz, neurriok azken aukeratzat hartu behar dira, beste aukerarik ez dagoenean alegia. Hala denean, nahikoa frogatu beharko da jarduketaren beharra eta beste aukerarik ez dagoela.

Azkenik, LZPk xehetasun-ikerketa zehatzak eta gaurkotuak egiteko eskabidea egin beharko die beheko planifikazio mailei, proposaturiko ekintzak abiatzeko ardura dutenei, zeren eta Lurraldearen Zatiko Plan baten plangintzak epe luzea baitu aplikatua izateko eta epe horretan aldaketa garrantzitsuak gerta baitaitezke. Halaber, LZPk eskatu egingo du, proiektuak zehaztu ondoren, behin betiko onespenetik sortu diren ingurumen-arloko araudi berriak betetzeko. Era berean, aholku bat eman behar du: ingurumenaren aldetik hobekuntza orokorra ekar dezaketen neurriak aintzat hartu eta ebaluatzea garapenari buruzko proiektuan.

Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien multzo hori, ondoren, ingurumenaren faktoreei dagokienez hartu behar da aintzat; izan ere, ebaluazioa eginda, neurri horiek Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen

Zatiko Planak proposaturiko ekintzaren baten edo hainbat ekintzaren ondorioa jasan dezakete.

IEBEn ondoko hauek babesteko neurriak ezarri dira:

- Uholdeen eraginean dauden esparruak.
- Ibaien ertzak.
- Ubideak.
- Higadura pairatzen duten aldeak.
- Baso autoktonoak.
- Igarobideak eta faunaren mugikortasuna.
- Ondare kulturala–naturala,
- Zelai atlantiarrak eta balore altuko nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako lurrak.
- Paisaia.

## 6.- PLANAREN ONDORIOAK IKUSKATZEKO PROGRAMA.

LZPren ondorioak ikuskatzeko programaren helburua, izan ere, prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriek duten aplikazio eta eraginkortasun maila egiaztatzea da, Ingurumeneko Eraginaren Baterako Ebaluazioak detektaturiko eta baloratutako eraginak murrizteari eta, ahal izanez gero, ezabatzeari dagokionez. Horretarako, zenbait adierazle kuantitatibo erraz zehaztuko dira eta neurriak eta horien emaitzak aplikatzea ekarriko dute.

Azterlan honetan proposaturiko neurriren batek ez badu izan espero zen emaitza ona, ikuskapen programak kausa ezarri eta soluzioa proposatu behar du. Halaber, Ingurumen Eraginaren Azterlan honetan aurreikusi ez diren

balizko eraginak detektatuko ditu eta neurriak proposatuko ditu, baina horien burutzapena eta eraginkortasuna bermatuko beharko dira.

## 7.- ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ERAGIN HANDIAK ETA LARRIAK SORTZEN DITUZTEN JARDUKETEN BERRIKUSPENA, LURRALDEKO PLAN PARTZIALAK BERRIRO EGIN ONDOREN.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, izapide hori sartu behar izan zen Durangoko Lurraldeko Plan Partziala idazteko prozesuan, nahiz eta horrek aurrerapenari dagokion fasea gainditua zuen. Hori dela eta, haren burutzapena eten egin zen aldi baterako, 2004ko otsailaren 10eko Foru Erabakiaren bidez.

2005eko urtarrilean ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa idazten hasi zen. Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlan horren lan metodologian ezarritakoaren arabera, Lurraldeko Plan Partzialaren lehenengo bertsioan jasotako helburuak eta proposamenak ingurumenaren aldetik ebaluatu ondoren, Planak eragin handia edo larria sortzen zuten ekintzak kendu eta aldatuko lituzke. Alde horretatik, Durangoko Lurraldeko Plan Partziala 2005ean berrikusi zen lehenengo aldiz.

Lehenengo dokumentu hori Ingurumen Sailburuordetzara bidali zen, ingurumen-eraginari buruzko aurretiazko txostena egin zezan. Txosten hori 2006ko abuztuaren 6an egin zen. 2006ko urrian ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren bertsio zuzendua aurkeztu zen, lehenengo bertsioan antzemandako hutsuneak zuzentzen zituena eta Lurraldeko Plan Partzialaren zenbait proposamen berriro hausnartzea zekarrena.

Ondoren, EHLABek derrigorrezko txostena egin zuen 2007ko urriaren 29ko bileran, hasierako onespena eman baino lehen. Horretarako, zuzendu

beharreko hainbat kontu aipatu ziren, horietako garrantzitsuenak Ur Zuzendaritzaren txostenetik ondorioztatutakoak zirela. Izan ere, horrek izapidetzen ari diren uholdea izateko arrisku orbanen aldaketari buruz ohartarazi zuen eta uholdea izateko arriskuaren itzulera aldien muga eguneratua eman zuen. Horren ondorioz, garapen berrien proposamenak berriro hausnartu behar izan ziren, hasierako onespenari begira.

Izapide horretatik ondorioztatutako beharrezko aldaketak dokumentuari gehitu zitzaizkion “Planaren dokumentazioa Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen osoko bilkurak hartutako erabakira egokitzea” izeneko eranskin bereziaren bidez, 2007ko azaroan. Aipatutako “egokitzapena” ebaluatzeko eranskina ingurumen-eraginaren gaineko baterako ebaluazioari ere gehitu zitzaion eta hori nahikotzat jo zen, ingurumen balorazioa doitzeko.

Durangoko Lurraldeko Plan Partziala hasieran onetsi zen Foru Aldundiaren 2008ko apirilaren 8ko Erabakiaren bidez, jendaurrean jarri zen eta herri administrazio interesdunei entzunaldia eman zitzaien. Partikularrek eta administrazioek aldi horretan egindako alegazioak zehatz aztertu eta gero, aintzat hartu beharreko aldeak eta zuzendu beharreko okerrak baloratu ziren. Hori dela eta, dokumentua zuzendu zen berriro eta eranskinen edukia dokumentuan bertan sartu zen.

Adierazitako alde horiek guztiek garapen berrien proposamenak berriro egitea ekarri zuten. Beraz, horietatik ondorioztatzen ziren aldaketak berriro jarri ziren ingurumen-eraginaren ebaluazioaren pean. Hortik sortu ziren dokumentuaren eta bere ingurumen-eraginaren gaineko baterako ebaluazioaren lehenengo bertsioen eta haien azken bertsio eguneratuen artean dauden aldeak.

Azterlan honetan proposaturiko azken ekintzak aztertu dira. Atal bakoitzean aurreko bertsioen aldean ukipen mailak izan duen aldaketaren balorazioa aurkeztu da; ukipen maila horiek aldi baterako zehaztu dira, prozesuaren

hasieratik egondako bilakaera erakusteko eta gaur egun ingurumenaren aldetik duten bateragarritasuna egiaztatzeko.

Egungo proposamenak antzemandako eragin handiak eta larriak kendu ditu, hirigintza hazkundeak hartu behar zituzten eremuen proposamenetan agertzen direnak. Gauzak horrela, Lurraldeko Plan Partzialaren egungo testuak erdi eta behe mailako eraginak baino ez du, ataletan zehaztu bezala.

Azken bertsio hori 2009ko abenduaren 28an bidali zitzaion Urdaibaiko Patronatuari, behin-behineko onespena eman baino lehen derrigorrezko txostena egin zezan. Horri buruzko erabakia 2010eko apirilaren 13an eman zen.

Laburbilduz, baiezta daiteke Lurraldeko Plan Partzialaren izapide konplexuek ekarri dutela aurrerapenari, hasierako onespenari eta behin-behineko onespenari dagozkien faseetako dokumentuen artean aldaketak egotea. Ez dira aztertu aurrerapenari dagozkionak, Lurraldeko Plan Partziala hasiera-hasieratik idazteko fasekoak baitira. Horrez gain, ez zen jarri ingurumen-eraginaren ebaluazioaren pean, hori arautzen duen 183/2003 Foru Dekretuan indarrean jarri baino lehen idatzi zen eta.

Hasierako onespenari eta behin-behineko onespenari dagozkien dokumentuen artean dauden aldaketa nabarmenenak honakoak dira: mugako eremuen mugaketen eta kokapenen aldaketei lotutakoak, 4. kapituluan zehaztu direnak eta uholdea izateko arriskuaren kartografia aldatu izanagatik zein azken aldian udal planeamendua aldatu izanagatik sortu direnak funtsean.

Hala eta guztiz ere, argitu behar da aldaketa horiek ez dakartela inola ere Planak proposaturiko lurralde eremua zehazten duten irizpideak aldatzea; izan ere, oro har etxebizitzetarako zein jarduera ekonomikoetarako kuantifikazioei eutsi zaie, ñabardura txiki batzuk eginda. Gainera, aldaketen ondoriozko

eremu berri guztiak ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozesuaren pean jarri dira.

Garapen berrien eremuen proposamenetako batzuk aldatzea justifikatzen duten arrazoiak honako alde hauei buruzkoak dira:

- Uholdea izateko arriskuaren itzulera aldien muga eguneratu berria. Hasieran eremuen kokapenari buruzko doikuntza egin zen, uholdea izateko arriskuak ez ukitzeko. Ondoren azterketa zehatzagoa egin zen eta horretan zenbait hirigintza irizpide hartu ziren kontuan, eremu berrien irisgarritasuna eta jada finkatuta zegoen hiri bilbearekiko jarraitutasuna bermatzen zituztenak, eremu berrien ondoriozko hautaketa zehatza izan zedin.
- Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasun eta Ingurumen Plangintzarako Zuzendaritzaren txostenak, fauna eta floraren espezie babestuei edo intereseko espezieei buruzko proposamenetako batzuen ingurumen-eraginaz ohartarazten zutenak.
- Proposamenei dagokienez hainbat udalek jendaurrean egoteko epean bidalitako alegazioak. Gainera, zenbait udalek beren planeamenduen aldaketak onetsi dituzte, Lurraldeko Plan Partzialaren proposamen zehatzak ukitzen zituztenak, adibidez, Berrizko hiltegiaren kasu zehatza.